

400 pezeta.
15 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

33





Ha
Eskola

Amaia Vazqu
elkarri

Haur-jolas
abestiak
Gehi

098ko ABENDUA





Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuitu Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.
Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sodupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
AN^tZA S.A.L.

Azaleko argazkia:
Ikor Kotxek egina
(Amaia Vazquez)

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.998/XI/24

Kopurua: 5.000 ale

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

HAUR ESKOLAK: LEHENA, ORAINA ETA GEROA

17 Erakundeak
Ikasbatuaz: bide berriak urratuz

19 Gehigarria
Haur-jolasen abestiak II

27 elkarrizketa
Amaia Vazquez

33 Berriak

37 Ekarpena
Badok hamalau
Xirula Mirulak DBHrako bideo-zintak kaleratu dituzte


38 Bai euskarari!
Goazen denok abestera!


40 Ekarpena
Liburu egokien bila
Hiruki taldea


COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE  Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasik ez ditu bere gain hartu
laguntzaileek plazaratutako iritziak
ezta bat etorri ere derrigorki haiek

 *fundazioa*
fundación







Egunkaria

urtarrila 99

				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31





Ekarpen interesgarriak plazaratzen ari da zenbait ikasle talde

ABENDUA

e d i t o

r i a l a

S

oka asko ditu Hezkuntzak. Eta denen artean guk bati tira egin nahi diogu. Bada azken aldian bereziki pozten gaituen zerbait.

Urtetan Euskal Hezkuntza Sistemaren eraikuntza lanetan dauzkagun bidelagunei, beste lagun berri batzuk elkartu zaizkigu? ikasleak.

Gehienek ez zituzten frankismo garaiak ezagutu. Askok ez zituzten bizi Euskal Herria alde batetik bestera mugiarazi zituen “Bai Euskarari” eta gisako herri mugimenduak. Zenbaitzuingana askorengan zauri sakonak utzi zituen publiko-pribatua eztabaidaren oihartzun urrunak besterik ez ziren heldu. Haientzat gertaera hauek guztiak iraganean bizi diren erreferentziak besterik ez dira. Hala ere, buru-belarri ari dira Euskal Hezkuntza Erkidegoa osatzen dugun beste guztiakin herri honek behar duen eta guztion nahi eta beharrak justukiago jasoko dituen eskolaren alde lanean.

Jakinaren gainean gaude ez duela batere lan erraza izan behar, edo behintzat eroso, urteen poderioz ia tradizio

bihurtu diren aldarrikapen horien aurrean bide berriak urratu nahi izatea. Eta gure uste apalean saiatze horrek aipamena merezi du.

Trantsizioaren, hizkuntz ereduaren eta erreformaren ikasleak dira eta hala ere, euren eguneroko lanarekin zeregin asko dugula egiteke gogorarazi nahi digute. Egunerokotasunean gure lanaren bestalde daude. Lehenengo eskutik jasotzen dute gure egin nahiaren emaitza eta beraz euren iritzia guztiz baliagarria gerta lekiguke.

Zenbaitetan euren iritzia ez dira bat etortzen gureekin eta elkarbizitzak aztoratze nabarmenak izaten ditu. Baina hau bideratzen jakinez gero ez ote litzateke guztiontzat aberasgarria?

Harro egon gintezke irakasleok egin dugun lanak fruituak ematen dituelako. Ikasleek agertu duten lanerako gogo, konpromezua eta proposamen berriak aurkezteko duten ahalmena gure lanak eman ditzakeen emaitzik ederrenak baitira.

Berez nekeza den eguneroko ikasle lanei Euskal Hezkuntzaren eraikuntzan ere bere ahalegina eta denbora eskaintzea erabaki duzuenok, Euskal Hezkuntza egitasmoan aire freskoa eta ideia berriak eskaintzen dituzuenok... Aupa zuek!


1- Asmo zaharrak gogoan.

2- Ideia berriak eskainiz.

3- Elkarlanean

4- Guztiak aberastuz.





Gizarteak arazoak eskolan konpon daitezzen nahi du bitartean, eskolak ere bere arazoak gizarteratzen dihardu

k r o n



Labiaga ikastolan egoera ez da hobetzen

Berako Labiaga ikastolako arazoak berriro ere oihartzuna izan du komunikabideetan. Azaroaren 13, 14 eta 15ean itxialdia burutu zuten Labiaga ikastolako irakasleek, Batzordeko gurasoek eta langileek. Itxialdiaren helburua ikastolaren egungo egoera salatzea izan zen. Izan ere, baldintza guztiak bete arren, DBH osoa legez-

tatu gabe jarraitzen du Nafarroako Gobernuak.

DBH legezatzeko prozesuari orain dela 6 urte eman zioten hasiera. HIK HASIren 14. zenbakian, 1997ko urtarrilekoan, arazoaren berri eman zigun orduan ikastolako zuzendaria zen Erramun Martiarenak. DBH eskaintzeko baldintza guztiak betetzen ditu ikastolak, baina Nafarroako Gobernuak legezatu eta kontzertatu gabe jarraitzen du arrazoi politikoak direla eta.

Gainera, UPNk ez du jarrera aldatzeko asmorik azaldu orain artean. Ikastetxe edo hezkuntza sistema hautatzeko askatasuna defendatzen ditu, eta gero horrelako jokaerak erakutsi. Gauzak horrela, Berako ikastolak bide judizialera jo zuen, eta bide luzea bada ere ebazpenaren zain dago.


Bitartean, ordea, ez dute geldirik eta isilik egoteko asmorik. Larunbatero kontzentrazioak egiten ari dira ikastolako atarian eta astero-astero eginen dute presio ekintzaren bat auzia behin betikoz konpondu artean. Ea urte berriarekin batera egoera berria iristen den Berako Labiaga ikastolara.


Lan arriskuak direla eta

EILAS sindikatuak irakasleria-aren lan segurtasunaren inguruko kezka azalarazi du. Eusko Jaurleritzako Hezkuntza Sailaren kontzertatutako salaketak jarri ditu Lan Arriskuen Prebentziorako Legea ez betetzeagatik. Salaketa honetan lan arriskuen prebentziorako delegaturik ez egotea eta Laneko Segurtasun eta Osasun Batzordearen eraketa legearekin bat ez etortzea salatu du. EILASek dioenez ez da egin ez lan arriskuen ebaluaketarik, ez prebentzio planik. Agintariek ez dute onen da Administrazioak ez duela prebentziorako politikarik eta arlo publikoan adibidea izan behar omen du.

Irakaskuntza publiko ez unibertsitarioko 18.000 langileek estresa, giza-hezurretako gaixotasunak eta ahots arazoak jasateko dituzte beren lan dela eta.

Egoera honen aurrean EILASek Hezkuntza Sailari akordio proposamen bat egin zion, baina ez du zuten jarraipenik izan. Horregatik erabaki dute salaketa aurkeztea.





“Kultura ez da metatzen, kulturak itzulinguruak egiten ditu gizakientzat beti eta edonon hil ala bizikoak izan diren erantzunen bila”. (Daniel BEL)

i k a



Euskarazko irakaskuntzaren arazoak eta arazorik eza

Gauza bakoitza desberdin ikusten da ikuspegiaren arabera eta horixe gertatzen da Nafarroan ere. Miguel Sanz Gobernuako lehendakariak esaterako, ez du arazo larririk ikusten. ELA, LAB eta EILAS sindikatuek irakaskuntzari eta Iruñeko auzo batzuetan dagoen eskolatzeko arazoari buruz zehazki hitz egiteko eskatu zioten. Sanzek adierazitakoaren arabera, Donibane, Ermitagaña eta

Mendebalde auzoetako haurren eskolatzeko indarrean dagoen legediaren arabera konpondu da. Datu orokorrei dagokienez, D eredua eskaintako toki guztietan ez dela bete adierazi du. Hau da, Haur eta Lehen Hezikuntzan %22,75 ez direla bete, DHBn %29 eta Heziketa Zikloetan eta Batxilergoan %34.

Baina datuok bere horretan ez ditu irakurtzen Sortzen Elkartek. Bete gabe gelditu diren tokiak Nafarroako geografiaren ondorio direla argitu dute, 25 tokiko gela asko ezin direlako bete herri txikietan.


Bestetik, Donibane, Ermitagaña eta Mendebaldeko haurren gurasoek ere erantzun diote Sanzik. Honek ez dutela amorarik eman esan zuen, baina gurasoek besterik diote. Irailaren 3tik amore eman zutela argitu dute, hots, aurtengo ikasturterako eman dizkioten alternatibak onartu ditzutela, baina hurrengo ikasturterako Jose Maria Iribarren edo inguruko beste edozein ikastetxetan irtenbideren bat aurkituko dutela ziurtatzea nahi dute.


Horrez gain, arazoari buruzko txostena bidali dute Europako Hizkuntza Gutxituen Bulegora eta gaia Estrazburgo eztabaidatuko da.

Ikasleak kalean

Azaroaren 17an ospatu zen Ikasleen Eguna Internazionala eta Ikasle Abertzaleak erakundeak deituta milaka ikasle irte ziren kalera. Manifestaldi hau bizirik dirauen borrokaren isla direla adierazi dute IAko kideek. Geure irakaskuntza eredu propioa eraikitzeke pausoa emateko prest azaldu dira. Egungo eredu iraultzeko apustua egin dute, euskal irakaskuntza berria sortzeko apustua. Etorkizuneko ikasleak Euskal Herrian ikastea lortzeaz gain Euskal Herrirako ikastea defentatzen dute. Euskal Herriaren biziraupena bermatuko duen irakaskuntza ziurtatzea da egungo ikasleen egitekoa.


Asmo eta ideia hauek guztia indarturik eta finkaturik gelditu dira gainera IAK Dimak ospatu zuen 10. urteurreneko jaialdian. Euskal Herrian egun bizi dugun egoera berezi honetan gizartearen eta ikaslearen ardura gogorarazi zuten, irakaskuntza garrantzitsua baita Euskal Herriko eraikuntza lanetarako.





GAIA


Haur Eskolak: le



Oraingo honetan erreformak Gipuzkoako Haur Eskolak ukitu ditu. LOGSE legeraren arabera, 2.002 urtetik aurrera Haur Eskola hauen ardura Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren eskuetan gelditzen da. Orain arte, ordea, Foru Aldundia izan da haurtzaindegiei dirulaguntza eman dien instituzioa. Momentu honetan, aldiz, ez batak ez besteak ez ditu bere gain hartu nahi Haur Eskolak. Horrez gain, aurrekontuak ere murriztu egin zaizkie.

Gauzak horrela, Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundeak bultzatu hainbat mobilizazio burutu dira, gure egun bat ere tarteko izan delarik.

Egoera honetaz Haur Eskoletako protagonistek zer pentsatzen dujakin nahi izan dugu eta ate ezberdinak jo ditugu. Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundeak momentu honetako egoeraren aurrean egin duen ko hausnarketaren berri ematu digu. Irene Balaguer Infancia eta Juventud fan-cia aldizkarietako zuzendaria berriz, ikuspegi historiko batean aztertzen ditu Haur Eskolak. Nola Alzolak hezkuntza ikuspegitik aztertzen ditugu Haur Eskolen garrantzia. Eta azkenik, Adarra Pedagogia Taldeak eta Gipuzkoako Foru Aldundia Haur Eskolen ezarpena nolatan den gauzatzen aztertu dute.



na, oraina eta geroa

Beharrezkoenak eta ahaztuenak

Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundea:
30 urte bizirik, 30 urte lanean. Zertan? Zergatik? Zertarako?

Gogoetak egin behar eta, bat-batean gaineratzen zaizkigu Haur Eskolen Koordinakunde barruan eginiko lanak, hartutako konpromezuak, gure etengabeko eginahalak espero edo nahi ez genituen hainbat gertaerei aurre egiteko, gure militantzi jarrera biziki sinesten genuen proiektu bat aurrera ateratzeko garaian eta abar luze bat.

Koordinakundeko Haur Eskolak (beste proiektu asko bezala) gizartean zegoen hutsune garrantzitsu bati erantzuteko jaio ziren, hainbat ekimen herrikoiei esker.

Hasierako helburua egoera sozialari lotua agertzen bazen ere, berehala iritsi ginen beste aldarrikapen honetara: "Haur Eskolak haurren eskolak dira" eta haur txikien heziketa eskubideak babestu beharko zukeen Hezkuntza Lege baten beharrea aurkitzen ginez, hori bideratzera (Estatu mailako Koordinakundean integraturik) zuzendu genituen gure aspaldiko ahaleginak, gaur egun, LOGSE legean gauzatu dena maila handi batean. Ez zen

beraz, eslogan hutsean gelditu galdarrikapena.


Eskabidea, ordea, ez zen Administrazioari begira bakarrik egin. Koordinakundearen zientziak ginen honelako aldaketarako sektore guztien konpromezua eskatu behar zen zuela, egiteko moduak aldatu behar zirela, prestaketa gehitzea... eta ondorioz, Haur Eskolek ere beren buruen gaitasuna hartu zuten hartu beharreko zaren eredu egoki bat finkatzea izan behar zela abiapuntua. Haurtzaindegia ez zuten erriak utzi eta heziketa zentzuzko gehiago murgiltzeko, nola ezkondu behar ziren familia eta haurraren beharrak proiektu bakar batean, proiektu hori, gaur egun, zuzenera, haurraren heziketarako proiektu bat izateko.


Helburua lortu dugula uste dugu. Gure haur txikien beharrei erantzuten dion eredu baten jarraitzaileak garelako esan dezakegu, eta esan dezakegun bezala, irakasleriaren makuntza-eskakizuna onartu izan dugula bertan lana egiten dugun kasle guztion aldetik, gaur egun, legearen eskakizunekin bat etorri.

Baina ibilbide honetan ez dugu denok berdin eskaini. Historikoki zehar hainbeste guraso eta hezitzaile en hazia fruitu eskasa ari da ematen. Erreforma baten aurrean apuratu denena bada ere, Administrazioak lehen erantzule eta erantzule garrantzitsuena, eta ongibeharrez, Administrazioa



Gipuzkoako Haur Eskolen Koordinakundeko kide batzuk





trazioaren ardura beharko luke izan dagoena jasotzea, batez ere gizarteak eskatzen eta egokitzat jotzen duen zerbitzu sare bat martxan dagoenean.

Administrazioak egin ditu gauzak. Hor ditugu 2 urteko gelak baimenduta, horretarako legeak ezartzen dituen zikloak puskatzen baditu ere.

Kalitatearen aldetik, bestalde, atzerakada nabarmena antzematen da. Eskola sareen kompetenziaren ondorioz, eskaintza izugarri zabaldu da eta haurren eskolak haurren kontura konpetitiboak bihurtzen ari direla ikusten ari gara, kasu gehienetan gurasoengan soilik pentsatutako eskaintza osagarriak egiten direlarik. Nork babestu behar ditu haurren eskubideak? Familian hezitze eskubideak, esaterako? Edota, indibidualitatea bizitzeko eskubidea?

LOGSE legeak ireki dizkigun espektatibak zurrumbilo batean sartu gaitu asko eta asko, eta denbora beharko da berriro taxuzko koordinatu batzuetan mugitzeko.

Administrazioa momentuz ikuspuntu egozentriko batean sartua dago, berea besterik ikusten ez duela, bere eskuhartze edota eskuhartzearen ondorioz gertatzen edo gertatzeko arriskuan dagoenari jaramonik egin gabe. Urtetako Haur Eskolak isten badira, noren ardura izango da? Diputazioak ez direla bereak dio, Hezkuntzak, berriz, inoiz ez direla bereak izan. Patata bero askia darabilkite bueltaka eta guk, berriz, gure betiko egitekoari eutsiz, ez dugu etsiko.

Orain 30 urte haur zen proiektuak, bere adin nagusitasuna lortu duela diogu. Garaia da Haur Eskolei zor zaien errespetua betirako emateko. **Jar ditzagun behingoz dagokien bidean, hau da, hezkuntza bidean.**

Esatetik izatera Haur Hezkuntzan edota ibilbide bateko frustrazioa



Irene BALAGUER

“Infancia” eta “In-fan-cia” aldizkarietako zuzendaria eta 86-96 epean, Espainiar Estatuaren ordezkari gisa, Haurtzararen Babeserako Sare Europarraren partaide izandakoa

Gogoan dut 70. hamarkadaren amaieraren inguruan atzerriko lagunak haur eskolaren bat ikustera eramaten nituenean, han ikusi eta entzuten zutenaz azaltzen zuten harridura. Lagun haiek diktadurapean luzeegian zirauen herrialde zanpatu batentzat ohikoa ez zen irudia jasotzen zuten, haur hezkuntzaren pedagogia eta ikusmolde instituzional haren errealitate bitxi hura ikustean.

Hura ulertu nahian egiten zizkiguten galderak arreta handiz hartzen genituen, nazioarteko planteamendu aurrerakoienaz haurrentzako hezkuntza errealitate berri bat eraikitzen ari ginenean kontzientzia indartzen zigutelako, orduan bizi ziren aire demokratiko berriekin urte haietako Haur Hezkuntzaren mikro-errealitate hura generalizatzea ere posible baitzen.

Beharrezkoa egiten zitzaigun txiki-errealitate berriaren eskolek osatzen zuten eszena soziales eta ofizialak haiei azaltzea, haur hezkuntzaren mendearen azken hereneko haur eskolaren errealitate haiek non, nola eta zergatik sortu ziren azaltzea.

60. hamarkadaren azkenean eta 70. hamarkadaren hasieran prosperitate-garaia bizi izan zela, Orduko egonkortasun ekonomikoaren ondorioz, esker lanpostu berriak sortzen dira emakumezko kopuru nabarmena handiagotzeko da sartzeko lan-merkatuan. Kontuan hartuta, behar dugu urte haietako jaiotza-tasak oso handia zela, gaurkoaren bikoitza baino gehiago ordukoa.

Panorama hark gizarteari premia berririk ez bat ekarri zion: etxetik kanpo lan egiteko aukerak zuten emakumeen haurrak zaindu behar ziren berriena, alegia. Errealitate berri haren ondorioz, haur hezkuntza ofiziala berehala etorri behar zen. “Haurtzaindegien Plan Nazionala” ezarri zen da, Haurtzaindegi laborantzaren subentzioak ezartzen dira, 5 urteko haurren eskolatzeari ekiten zaio delako. “Eskolaurreko gela” haieran EGB berrituraren gehigarri gisa.


Erantzun ofizialarekin batera gizartearen sektore asko antolatzen hasten da. Haur hezkuntza errealitate handiko gizarte hark lan merkatu hura hurbildu nahi zuten haur txikiak zaindu beharrei erantzun nahi izan zuten “Haur Eskolak” sortuz.


Horrela hasi zen egituratzen merkatu profesional eta sozial oso zabalak sortzeko bat eta handik sortutako bi ideia sinpleak bezain argiotan oinarritu ziren sortu ziren Haur Eskolak:

Ez zuten neska-mutikoak zaintzea helburu, haiek hezitzea baiziki.

Ez zuten arazo indibidualen konponketa helburu, biztanleria osoarena baiziki.

Hutsune hari beraz bi aldetatik aurreratu zaien soluziobidea aurkitu nahian. Bertatik, instituzioek proposatutako aldatutako errealitate, eta bestetik, biztanleria guztia zaindu behar zuten eskubidea bermatzea.





GAIA

Haur Eskolak: lehen, oraina eta gero

zion borrokatik. Bi ikuspegiak bideratu izan zuten hogeitun urte baino gehiagoko Haur Eskolen aldeko borroka eta biek ahalbidetzen digute gaur amankomunean zituzten ezaugarriengatik hainbat zentro eta profesionalen ekimenak identifikatu ahal izatea.

Hauexek dira aipatu ezaugarriak:

Indibidualtasuna eta taldetasuna konbinatu nahi izatea.

Harreman-sistema berezia sortzea, pertsonen arteko erlazioak baitira arrakastarako ezinbesteko ardatza: arrakasta bai umeen arteko harremanetan, ume eta helduen artekoetan, helduen euren artean, eta baita eskolaren barruko eta kanpoko espazioen artean ere.

Egunerokotasunaren pedagogian oinarritzea, haurren oinarritzko beharrak betetz, janz, lo eginez, jolastuz, ezagutuz, taldean bizi elkarrekin bizitzen ikasi ahal izateko.

Ekimen dinamiko eta malguez eragindako erritmoa eramatea. Aro honetan haurrengan ematen egonkorak izaten dira eta eskola askotan taldeekin den eboluzio harrigarriak malgutasun handia eskatzen du hartara moldatu ahal izateko. Beraz, funtsezkoa bihurtzen da behaketarako gaitasun handia izatea.

Egonkortasuna. Txikitxoek bizitzako edozein arlotan erregulartasuna oinarritzea eta nahitaezkoa da haurrentzat. Horregatik, haur taldeak batera mantentzen dira hezitzaileak ere. Denboraren erritmoa ere ohiko bihurtzen da eta espazioen ordena eta banaketa egonkortasuna eragiteko eratuak izaten dira.

Talde lanaren eta familiekiko harreman estuen dinamikak ahalbidetzen du Hezkuntza instituzio batentzako derrigorrezkoa behar lukeen gogoeta egitea.



Hainbestetan errebendikatu den Haur Eskolen Legeak ere somatzen du LOGSEk jasotzen duela helburu bikoitz hura. Legeak onartzen du 0-6 urte bitarteko haurrak heziketa jasotzeko duten eskubidea, onartzen du Haur Hezkuntzak eta Haur Eskolek identitate propioa dutela, pedagogia berezia dutela, onartzen du Haur Eskolen eta familien elkarlanaren beharra, eta arautzen du hezkuntza administrazioak, eskaeraren araberean neurri-


ko eta kalitatezko Haur Eskolak bermatuko dituela.

Hementxe ordea, azken puntu honetantxe jazotzen zaigu nahasketa. Gaur egunean, hamar urteren buruan, LOGSE ez da oraindik Haur Hezkuntzan erabat ezarri, nahiz bigarren zikloa asko hedatu den. Tamalez, kalitateari baino kantitateari garrantzi handiagoa eman diote, ez da kontuan eduki etapa osoaren nahitaezko kohesioa ez planifikazioan, ez formakuntza planetan, ez eta zirkuitoetan, ez da administrazioen arteko koordinazioa gauzatu, ez eta hainbeste udal, guraso eta irakasleen kooperatibak buruturiko lan eskerge aitortu ere.

Paradoxikoa da bai, orduan bezalaxe atzerriko lagunek bisitan etortzen zaizkigunean errealitate bikoitz edota hirukoitz baten azalpenak eman beharrean izatea gaur egun ere. Errealitate ofizialak lege koherentea du eta praxi politikoa aldiz, harekin batera loturarik ez duena. Hainbeste eskolak eta irakasleek daramaten erresistentziaren errealitatea oster, oraina lantzen eta etorkizuna prestatzen ari dira behin eta berriz XXI. mendekoa baino XIX.ekoa dirudien administrazio zaharkitu baten erantzunekin topo egiten dutelarik.

“XXI. mendekoa baino XIX.ekoa dirudien administrazio zaharkitu baten erantzunekin topo egiten dugu”





Hezkuntza, haurren eskubidea



Nerea ALZOLA
Eskoriatzako Irakasle Eskola

Mende honen amaierara heldu garelarik, gizakien oinarritzko eskubide batzuk, zehazki duela urte asko Giza Zientziek eta Nazioarteko Erakundeek eskatu eta aldarrikatu zituzten batzuk, ahazten ari ez ote zaizkigun galdetzen diogu geure buruari. Eskubide horietako bat emakume eta gizon orori berez dagokien hezkuntza-eskubidea da.

Gaur egungo egoera ikaragarria da. Izan ere, Afrikako herrialde batzuetan bi haurretatik batek datozen urteetan ez du eskolara joateko aukerarik izango eta makina bat haurri desnutrizio sistemati-koak garapen normala eragotziko die. Horrek guztiak zalantzan jartzen du gure giza duintasuna, batzuk besteengandik 3.000 km. Iparraldera edo Mendebaldera bizi arren, mundu bereko biztanle garen aldetik izan beharko genukeena.

Euskal Herrian bizitzeak alderdi askotan pribilegiatuak eta aberatsak garelako sentiarazten digu. Toki askotan elikatze-ko eskubidea zapalduta eta ukatuta dagoela jakinda, ia larritasuna ematen digu intimitaterako eskubidea errebindikatzeko. Hezkuntza eremuan gure neska-mutilek ziurtatuta dute 16 urtera arteko

eskola, eta hori luxu handia da miseria gorrian dauden beste herrialde batzuetako haurren egoerarekin alderatzen badugu, ez baitute eskolara joateko aukerarik (45 herrialde inguru dira Nazio Batuek oso pobretzat jotakoak).

Gure egoera pribilegiatuari hurbiletik begiratzen badiogu, geure buruari galde-tu ahal diogu ea azken urte hauetan gizarte-lorpen batzuetan -esate baterako hezkuntzan- aurrera edo atzera egin dugun eta haur guztien eskubide izan beharko lukeen hezkuntzaz zer planteamendu edo ikuspegi dugun; hausnarketa horrek gure lehentasunak ikusten lagunduko digu. Gure baliabideen banaketaren nondik norakoak gure kontzientzia sozialaren eta elkartasunaren berri emango digu.

Rawls-ek zera diosku eta oso interesgarritzat jotzen dugu autore honen teoria: "Hezkuntzarako baliabideak ez dira produkzio-ahalmen gisa errenditu dezaketenen arabera bakarrik banatuko nahitaez, baizik eta hiritarren bizitza pertsonala eta soziala, baita behartsuenena ere, aberasten duten bitarteko gisa duten balioa ere kontuan hartuta. Gizarteak aurrera egiten duen heinean, iritzi horrek gero eta garrantzi handiagoa hartzen du." (Rawls, J. (1993) Teoría de la justicia. México: Fondo de Cultura Económica)

Dirudienez, hezkuntza komunitateak zentzurik zabalenean hartuta adostasun batzuk lortu ditu eta Brunerrenak moduko proposamenak nahikoa onartuta eta integratuta daude, gutxienez teoriarik.

Gizakia "homo docens" gisa eta ez "homo sapiens" gisa ulertzeko, kontuan izan behar da kulturaren forma eta tresnak erabiltzea eta menperatzea ez dela "adimen handiagoa"ren kontua, baizik eta korapilatsuagoa dela, hain zuzen ere, gizakiok egoera mentalak subjektiboki konpartitzea ditugun aukerekin zerikusia duen zerbait. Horri esker, hots, "besteak" eskaintzen digun laguntza eta "gida"ri esker, hezkuntza eta, azken buruan, inguratzegaituen munduaren eraikuntza bidegarria da.

Horrela bada, trukaketa eta elkarrekin soziala funtsezkoa dira humanizaziorako. Aldamioak emateak hauxe eskaintzen du: "eraikuntza interaktiboaren mugitza zesuari hurrengo mailara segurtasun mugitzea ahalbidetuko dioten euskarri sortzea".

(Jerome S. Brunerrek, 1997ko ekainaren 26an Gironako Unibertsitateak Doctor Honoris Causa izendatu zuen inbentario-ekitaldian esandako hitzak).


Beste hitz batzuez esanda, Vigotskiak jakinarazten du giza ahalmenak pertsonen bileren gizarte harremanetan gauzak -baterako kultur baliabideak- ikasten dituzten pertsonen garatzen direla.


Halaber, badakigu gizarte eta kultur aldaketek duela urte batzuetako ez berrirako bizimodua dakarkietela haurretan. Gaur egun haurtzaroari arreta egiteko eskaintzeko behar-beharrezkoa da gizartearen garapen-inguru oso zaindu eta seguruak izatea.

Haur Hezkuntza ez da gurasoekin egiten dutelako seme-alabei ezin erantzun ahal izatearen ondorio gisa ulertu behar. Hala berean, hezkuntza ez da gizartearen luxu bat, nahiz eta beste egoerarekin konparatuz horrela dirudien, gurasoek beren erantzukizunei uko egiten ere, haurrek beren bizitza eta garapen eremu bermatu eta komenigarrian bizi zeko duten eskubidea baizik. Interesgarria zaiguna zera da: haurra bizi deneko hezkuntza-eremuak, bere garapen integro sustatuko duen inguru fisiko eta afektiboko egokia eskaini behar dio.

Haur Hezkuntzaren egitekorik garrantzitsuenak eta familiarren egitekoekin konparatuz erantzun behar ez lukeena, hau ordezkatuz ere -zera da: gure haur beren burua ezagutzeko esparru egiteko eskaintzea, autonomia eta komunikaziorako, elkarri entzun eta bizitzarekin harremanean jarduteko esparrua.

Haur Eskolak gai izan behar du haurrek hartzen dituzten ekarpen ezberdinak jasotzeko; haurren eta kulturaren arteko bitartekari izan behar du, eta aldi berean





GAIA

Haur Eskolak: lehen, oraina eta gero

haurrei kultura-sortzaile izaten lagundu.

Emilio Lledok dionez, “kultura ez da hainbat lekutan dauden gauzak, zuk gauza horiei ematen diezun bizia baizik”. (Salaberria, R., Solano, F.: “Emilio Lledo”, Educación y Biblioteca 50, 1994)

Haur Eskolan eguneroko bizitza ikas-kuntza-gai bihurtzen da, eta bertan erakitzen da bakoitzaren nortasuna ere.

Baina eguneroko bizitza planifikatu egin behar da, buru argitasunez egitaratu, norberaren errealitatearekiko arretan oinarritu, haurrekin bizi diren hezitzaileen kalitatean sustraitu eta familia bizitzarekin etengabe-ko harremanaren ginean eraiki.

LOGSEk definitzen duenez, Haur Hezkuntza hezkuntza sistemaren etapa bat da. Beraz, ez da gero eskolaratzen denerako prestakuntza, ondo zaindu behar den haurren hezkuntzako une garrantzitsua baizik, inbertsio pertsonal eta sozial handia baita. Hau da, Haur Hezkuntzak haur guztien eskura egongo den zerbitzua izan behar du eta honako ezaugarriak izan behar ditu: haurren eta familiaren beharrei egokituta egotea, haurren garapena sustatzea eta interes eta behar guztiei erantzutea.

Baina lehenxego adierazi dugunez, Haur Hezkuntzak oinarritzko kalitatea izan dezan, hainbat baldintza bete behar ditu:

- Hezkuntza-asmo esplizituak izatea.
- Espazioa eta denbora antolatzea.
- Haurren segurtasunaren eta garapen integralaren araberako jarduera eta materialez baliatzea.

- Haurren familiarekin harremanak izatea, familiari hezitzaile-lanetan laguntzeko eta eskolak bere lana haurren aniztasunari egoki diezaion laguntzeko.

Oinarri-oinarritzkoa iruditzen zaigu Haur Hezkuntza haur guztien eskubidea dela berriro aldarrikatzea.

Eta adierazi dugunez, horrek ez du esan nahi familiak hezten ez duenik. Gainera, kontuan izan behar da, familiak anitzak direnez gero, beharrak ere anitzak direla. Haur Hezkuntzak guzti-guztiei erantzun behar die, horretarako askotan asmatu edo beste hezkuntza sistema batzuetatik hartu beharko ditugun eredu edo formula ezberdinak erabiliz. Baina kontuz, horrek

ez du esan nahi haurrak zaintzeko era guztiak egokiak direnik edo hezitzaileak iruditzen zaizkigunik.


Haurrak zaintzeko era batzuek ez dute errespetatzen haurren eskubide hori.


Haur guztiek dute hezkuntzarako eskubidea, baina kalitatezko hezkuntzarako, jakina. Zenbat eta txikiagoak diren, orduan eta hezkuntza kalitate handiagoa behar dute. Eta familia inguruan zenbat eta gabezia handiagoak izan, orduan eta gehiago zor die gizarteak.

Teresa de Avilak zera esaten zuen XVI. mendean bere betiko zentzunarekin: “Ez zaitzete ahalegindu mundu osoa laguntzen, zuen inguruan daudenei baizik.... Geure burua engainatzea da eskura dugunaz ez baliatu eta gauza egingarriak ez egitea, eta gera gaitetzen pozik ezinezko gauzak desiatzen” (Moradas VII, 4,14).

Bada, guk ere ez dezagun gauza handiez pentsatu, ez baitugu gure gizartearen sektorerik handienaren eskubide batzuen alde nahikoa borrokatzen. Printzipio horretan oinarrituta, elkertasunezko benetako urratsak eman ahal izango ditugu.

“Haur guztiek dute hezkuntzarako eskubidea, baina kalitatezko hezkuntzarako, jakina”





Lehenengo zikloa eskoletan?

ADARRA Pedagogi Erakundeak
Bilboko Haur Hezkuntza lantaldea

Haur Hezkuntzako irakasle talde bat 2 urteko gelei buruz txosten bat osatzen ari gara ADARRAren Bilboko egoitzan. Liburu batzuk eta gure eguneroko lana aztertu ondoren, metodologia proposamen batzuk biltzen saiatzen ari gara. Lan honetan sartuta, 2 urteko haurren eskolaratze prozesuari buruz oraindik alderdi batzuk argitu barik daudela konturatu gara.

Alde batetik, gure iritziz, ez da sakontasunez aztertu egoera hau nola sortu zen, nola garatzen ari den eta norantz doa. Egia esateko, hasieratik hona aldaketak eman dira, eskoletan gauzak zuzentzen joan gara. Baina non daude eskolaratze honen emaitzak? Zein da Hezkuntza Sailaren asmoa? Non daude ikuskaritzak egindako datu bilketaren ondorioak? Nolako etorkizuna ikusten dute Haur Eskolen Koordinakundeak?

Beste aldetik, 2 urteko gelak zabaltzeko aipatu ziren arrazoiak orain eskola batzuetan urte beteko gelak zabaltzeko erabiltzen dituztela ikusten dugu. 2 urtekoekin txarto egin dena urtebeteko haurrekin errepikatzerik ez guke nahi.

Ez dugu alarmistak izatea nahi, baina irakasle bezala ditugun ardurak ukatzea ere ez. Pilota guzitak ez ditugu Administrazioaren teiltura bota behar eta irakaslearen arduren hausnarketa eta eztabaida errazteko idatzi dugu artikulutxo hau.

Lehenengo zikloaren kokapena

LOGSEK etapa hezitzaile bezala definitzen du Haur Hezkuntza, hau da, 0-6 urte bitarteko etapa. Etapa hau bi ziklo ezberdinetan banatuta dago; alde batetik, 0-3 zikloa eta bestetik, 3-6 zikloa.

Euskal Autonomia Erkidegoan bigarren zikloa, gutxi gora-behera azken hamabost urtetan eskoletan zabaldua

badago ere, lehenengo zikloaren egoera zeharo berezia izan da.

0-3 ziklorako erantzukizuna titularitate ezberdinen menpe egon da eta egoera honek ezaugarri ezberdinak izan ditu Euskal Autonomia Erkidegoako lurraldeetan. Honela, haur eskola pribatuak, publikoak, kooperatibak eta BBK aurrezki kutxakoak aurkitzen ditugu gaur egun herri ezberdinetan.

Egoera koloretsu honetan murgilduta, Haur Hezkuntza etaparekin lotuta, arau desberdinak agertzen dira. Haien artean pare bat baino ez ditugu aipatu nahi:

- Euskal Eskola Publikoaren Legea 1993an argitaratu zen. Hona hemen 9.2. ataletik hartutako esaldi batzuk: "Hezkuntza administrazioak, gainerako administrazioekin eta gizarteko eragileekin lankidetzan eska dezaten guztiak arian-arian zero urterekin eskolaratzea ezarriko du..." eta "ezarpen prozesuan lehentasuna izango dute gizarte eta ekonomi maila apaleneko aldeak eta, orokorrean, hezkuntzako behar bereziak edo hizkuntzakoak dituzten ikasleak".

- 1998ko abuztuko boletinean gizarte edo kulturaren ikuspegitik besteak baino egoera txarragoan diren ikasleentzat argitaratutako 3011 Aginduan zera esaten du: "Ikasle horiek txiki-txikitatit eskolaratzen saiatzea beste administrazio, erakunde eta eragile batzuekin batera. Horretarako... batez ere lehen zikloko plazak... eskaini behar ditu, eta halaxe kontuan hartu planifikazioa egiteko orduan".

Ikusten dugunez, zikloko planteamendua agertzen da arauetan, baina Administrazioa gaur egun hartzen ari den erabakietan kontraesan nabariak agertzen dira.

Bi urteko haurren gelak

Hasiera hasieratik eta gaur egun ere erritmo ezberdinez eta lurralde bakoitzean ehuneko ezberdinetan, hainbat arrazoi direla medio, 2 urteko haurren gelak eskoletan zabaltzen hasi ginen.

0-3 urteko haurren eskolaratzea %21,7 bazen 1993an, gaur egun %85 bi urteko haur eskoletan daude. Bizkaian bakarrik, sare publikoan noski, 200 gela inguru zabaldu dira azken urteetan. Datu honek

ez luke negatiboa izan behar, baina egoera honen helburua, marko normatiboak ondorioak argi ikusten ez ditugunez, ikasle katuta gaude.

Beste aldetik, egoera hau gure Autonomia Erkidegoan baino ez da zabaldu, emandako arrazoien artean batzuk azaltzeko ditzakegu:

- Jaiotze tasaren jaitsiera.
- Sareen arteko norgehiagoka.
- Irakasleen lanpostuak mantentzea (aurreko bi arrazoen ondorioz).

- Eskolaren etorkizuna ziurtatzeko asmoak.
- Herrian edo auzoan haur eskolaratze egotea (bistan dago ez dela beti egia izan).

Izandako esperientziaren arabera, eskolaratze rako, eskola askotan 3 urtera heltzen diren hainbat haurrek baja ematen dute. Honek ikusita, gelak zabaltzeko emandako arrazoiak birplanteatu behar direla uste dugu.

Nola egin da eskolaratze hau? Dena onartu zehatzik ez daukagula aitortzen dugu, baina eskualde ezberdinetako lankideak gure inguruan ikusten duguna kontrastatuz, iritzia bat borobiltzera ausartzen gara. Beraz, eztabaidarako zabaltzen dugu.


Bi urteko haurrekin egin denaren azalpena berraketa eta hausnarketa egitea guztiz berraketa errezkoa egiten zaigu, denbora gutxi batera urte batekoekin gauza bera egingo dute. Hainbat beldur garelako. Lehenengo zikloa behin, zera salatu behar da: zikloaren oinarria apurtu egin dela zikloari osotasunez ez zaiolako erantzunik ematen.


Bestalde, lehendik funtzionamenduko dagoen 0-3 Haur Eskolen sarea ez da oso eragileak eskatzen duen zerbitzua ematen eskaini eta landu arren. Ez zaio hezkuntzari sartzeko aukerarik eman oraindik alderantziz, konpetentzia zorrotza ez bada.

Salbuespenak salbu, prozesu honetan akats hauek ikusi ditugu:

- Hainbat ikastetxetan ez da planginik argi eta orokor bat egin. Batzutan 2 urteko gela baztertua egon da, Ikastetxe Curriculum Proiektuan parte hartu behar du eta adin honetako haurrek dituzten beharrik erak gehiegi aztertu barik.

- Irakasle handientzako diseinatutako baldintzetan eskolaratzen dira haurrak hauek. Esparruak, ratioak, egutegiak, ordutegiak, baliabideak... ez dira aldatu.





GAIA

Haur Eskolak: lehen, oraina eta gero

ikastetxeek haur hauek onartzen dituztenean, haur hauek beste baldintza eta antolake-
ta erak behar dituztela kontuan hartu barik.

- Gela honetaz arduratuko den irakaslea aukeratzeko ez dira beti irizpide pedagogikoak aurretik jarri. Ezagutzen ditugun hainbat kasutan eskolara iritsi den azken irakasleari pasa zaio ardura, irakasle egonkorrak hartu beharrean.

- Lehenengoz, gela hauetan lan egiten duten irakasleei ez zaie beharrezko duten prestakuntza eskaintzen, eta ikastetxeetik ere askotan ez zaie eskatzen.

- Baliabide pertsonalak ez dira oso ondo antolatu hainbat kasutan: batzutan tutoreari laguntzeko klaustrakide ezberdinak pasa dira, hain zuzen ere ordua libratzen zutenak, eta beste batzutan guraso elkar-
teek laguntzaileak kontratatu dituzte oso baldintza eztabaidagarrietan.

- Eusko Jaurlearitzak ez ditu eskolaratze honetako baldintzak arautu eta Ministeritzak egindako 1004/1991 Dekretu Errealean agertzen diren gutxiengo batzuk ez dira bete.

- 2 urteko haurrek ez dute dirulaguntzak eskatzeko eskubiderik, nahiz eta Euskal Eskola Publikoaren legeak kontrakoa esan.

- Beharrian bereziko haurrek ez dute eskolan egoteko eskubiderik. Kasu gehienetan matrikula garaian onartuak izan arren, ondoren eskolatik kanporatuak izan dira, beraientzat inolako laguntzarik ez dagoela aitzakitatzat jarri.

- 2 urteko haurrek eskolan matrikulatuta egon arren, bigarren ziklora pasatzeko berriro matrikulatu behar dira.

- 0-3ko Haur Eskoletan 2 urteko haurrek desagertzean zikloa galdu egin dute eta beharrenez ondorioz eskola batzuk ixtera kondenatu.

Ondorio bezala zera aipatu behar da: haur etapa guztiz egituratu gabe eta hezkuntza planteamenduak mamitu gabe gelditu direla.

Eskariak edo ezinbesteko baldintzak

Haur Hezkuntzaz arduratuta gaudenok guztiz beharrezkoa ikusten dugu hemendik aurrera honako alderdi hauek tratatzea eta kontuan izatea:

- Haur Hezkuntza (0-6) etapa osorako planifikazio orokor bat egotea eta ez adin bakoitzaren eskolaratzearekin inprobisatuz

ibiltzea. Ziklo bakoitza bere osotasunean hartzea ezartze planifikazio zehatza eginez.

- Oti 6 urtera integratua dagoen etapa izan behar du, beraz ziklo ezberdinak ematen dituzten haur eskolen artean gaur egun dagoen banaketa gainditu behar du.

- Beste etapekin kontuan hartu den bezala, etapa hau eskola mapan era planifikatu batean sartzea. Horretarako eskualde bakoitzean zera hartu beharko litzateke kontuan: gaur egunera arte zerbitzu hau eskaini den ala ez, herri handia ala txikia den, haur eskolarik dagoen ala ez, eta nolako kalitatea izan duen honek, publikoa izan nahi duen ala ez...


- Marko normatiboa osotzea eta argitzea oinarri batzuek betetzeko asmoz: baliabideak, ikasleen dirulaguntzak, beharri-
za bereziei aurre egitea eta abar.

- Kantitatearen aurrean kalitateari garrantzia ematea. Etapa honen borondatezko izaerak eta adin hauetako hezkuntza ekintza ezaugarriek eskatzen dute haur eskolak eskari ezberdinetara malgutasun handiz egokitzeko gaitasuna izatea, hala ordutegian nola antolaketa eta jarduera era konkretuetan.

- Irakasleria osoak ikastetxearen titularrak ordaintzea. Denek titulazio bera, ordu kopuru bera, baldintza berdinekin, baina ikastetxearen ordutegia, haurren ordutegia eta gurasoen beharrik ez direla berdinak kontuan izanez.

“Haur etapa guztiz egituratu gabe eta hezkuntza planteamenduak mamitu gabe gelditu dira ”





LOGSE eta Haur Eskolak



Maximo GOIKOETXEA
Gipuzkoako Foru Aldundiko
Gizartekintzako Gizarte Zerbitzu
Especializatueta zuzendaria

Gizarte laguntzako gaien eskumenak eskuz aldatu zirenez gero, Gizartekintza - Gizarte Zerbitzuetako Departamenduak bere gain hartu zuen garai hartan langile haurtzaindegi zeritzaien mantenimendurako dirulaguntzen atala. Orduan, zerbitzu hori familiaria eta, bereziki, emakume langileari haurrren zaintzan aldi batez laguntzeko bitarteko gisa hartzen zen, eta izaera ordezkagarria aitortzen zitzaion.

Ildo horretan, Gizarte Zerbitzuetako Departamenduak, 1987an hasita, aurrekontuetan ohiko transferentziak sartu izan ditu haurtzaindegien mantenimendurako,

dirulaguntza horri izaera osagarri eta ordezkagarria emanda.

Baina zertan datza oraingo aldaketa?

Hezkuntza Sistemaren Antolaketan Orokorreko Lege Organikoak, LOGSE izenez ezagunak, lehengo ez bezalako ikuspegi bat ezarri du haurren hezkuntzaren gaian, hezkuntza sistemaren lehen adin tarte bezala hartzen baitu 0-6 urte bitartea, eta arautu ere arautu baitu lehen idazpuruko lehen kapituluan.

Horren ondorioz, dirulaguntzak poliki-poliki gutxitu egin dira, bi arrazoi hauengatik:

1) Haurtzaindegiak hezkuntza sistemara moldatu behar dute,

LOGSEk hezkuntzako lehen tartertat hartu eta arautu dituelako eta hortaz, dirulaguntzen konposizioak Hezkuntzako erakundeetara etorri beharko luke.

2) Haurtzaindegiak heziketarako erakundeak direnez, ez dugu uste Gizarte Ongizateko politikaren bidez izan behar dutenik.


Labur esateko, **Gizartekin** Departamenduak gizarte politikaren mugaketarekin bat dator bidea hartu du, hau da, lege aurreikusten dituen bezala egokizun dizkio elkarri esparruak eskumenak.


Hala eta guztiz ere, **Gizartekin** Departamenduak ez ditu eskumenak kendu, 1996az geroztik poliki-poliki gutxitu baizik, eta baina horretatik, haurtzaindegiak LOGSE legeak dioenera egokitzeko proiektua sua errazten du. Oraingo haurtzaindegiak babes gabe edo itxi behar izan utzi gabe, arian-arian hezkuntza alorrak har ditzan da departamenduhonen asmoa.

Gauzak horrela, **Gizartekin** Departamenduaren ustez, gaurko haurtzaindegiak LOGSEk aurreikusitakoan sartu behar dute. Dena dela, lege horrek eskakizun handiak ezartzen ditu, eta oraingo haurtzaindegiak egokitzeko benetako ahalegina egin beharko dute kalitate handiko hezkuntza proiektu berri bat helburutzat hartuta.

Bestalde, egia da legea indarriz jartzeak gaur egun dauden zerbitzuetan moldaketak ekarriko dituztela, baina beste aldetik, legeak eskatzen duen adinako kalitateko zerbitzua emateak onura handia ekarriko dio haurrren zaintzazalantzarik gabe.

“Gizartekin-tza Departamenduaren ustez, gaurko haurtzaindegiak LOGSEK aurreikusitakoan sartu behar dute ”





Erakundeak...

Ikasbatuaz

Bide berriak urratuz

Ikasbatuaz Elkartea 1993/94 ikasturtean sortu eta 1995. urtean legeztatu zen. EAEn sare publikora pasatako ikastolak elkarrekin bildurik eratu zen. Publikazio prozesu korapilatsuari aurre egiteko sortu zen, eskola komunitateko partaide guztiak batuz. Orain arteko ibilbideari errepasso bat emateko eta aurrerantzean jarraituko duten norabidea finkatzeko, azaroaren 21ean bildu ziren asanbladan. Hemendik aurrera, bakoitzak dagoen lekutik lana egin behar duela argi edukiz, sare publikora -bereziki- bideratuko dituzte beraien esfortzuak Euskal Eskola Publiko Berri baten alde lan eginez.


Ikasbatuaz Elkartea EAEn sare publikoan bildutako ikastolako bazkideak biltzen ditu bere barnean momentu honetan. Ikastola horietatik bat Araban dago, zazpi Bizkaian eta 14 Gipuzkoan, denetara 10.500 ikasle


biltzen dituztelarik.

Orain arte izan dituzten erronka eta lanak hauxek izan dira: eskola mapa egitea, Hezkuntza proiektu amankomuna gauzatzea, Derrigorrezko Hezkuntzan 2-16 urte bitartekoentzat zentro bakarrak lortzea, pertsonal ezdozentearen hizkuntza-eskakizunak, administrariaren arazoak, jangelak, beste elkarteekiko harremanak (Nafarroako Sortzenekin, sindikatuekin, guraso elkarteekin, alderdi politikoekin, eskalgintzako sektoreekin...), ikastola publikatuen bitartekaritza administrazioarekiko, elkartasun kuxaren kudeaketa eta abar.

Bestalde, Ikasbatuaz taldearen barruan dauden ikastola gehienak Ikastolen Elkartearen partaide direla

ere aipatu behar da, gehiengo bakoitzak federazioek eskaintzen dituzten zerbitzuak erabiltzeaz gain, Ikastolen Mugimenduko partaide izateko beharrezkoak diren erabilerak errezkotzat jotzea eta hutsuneak ekarri ditu. Onurak aldetik, ikastola izaerari eusteko arazoak, publikazio ondorengo liskar baretzea, federazioek eskaintzen dituzten pedagogia zerbitzuen erabilera gauzatzea eta Ikastola Mugimenduko partaide aktibo izaten jarraitzea ere aipatu behar dira. Hutsuneen artean, berriz, hutsuneak ikusi dituzte: sare publikoan ikastolak bigarren mailako ikastola sentitu izana Ikastolen Elkartearen barruan, sare berri batean kokatzea ekarritako zailtasunak nondik norak markatzeko garaian eta ikastola





barruan konfederakundearekiko zegoen mesfidantzak sortutako inertzia.

Aurrera begira zer?

Honen guztiaren inguruko hausnarketa egin zuten azaroaren 21ean burutu zuten Batzarrean. Lehenik, Ikasbatuaz iritziz, Ikastolen Elkartek planteatu duen antolaketa berria, bertako ikastola guztien (publiko nahiz pribatu) Batzarrak erabaki behar du, bakoitzaren norabidea eta elkarrekiko dituzten lan ildo eta konpromezuak (pedagogiko zein beste edozein arlotakoak) Batzar horrek erabaki beharko lituzkeelarik.

Irekitzen duten aro berri honetan eta EAE mailan, Ikasbatuaz proiektua ezagutzera ematea eta ikastola-eskola publiko euskaldunen indar metaketa bat lortzea da lehen erronka.

Horretarako, beraien proiektua eta asmoak ezagutarazteko konpromezua hartu dute. Ikasbatuazetik kanpo gelditu ziren ikastola publikoekin eta gainontzeko eskola publiko euskaldunekin elkarlana egiteko aukera gauzatzeari hartu dute helburutzat. Etorkizuneko Euskal Eskolaren ereduaren zutabe izan nahi duen Euskal Eskola Publiko Berriaren helburuarekin bat egiten duten ikastetxe publiko euskaldun guztiarekin gauzatu nahi dute elkarlan hori.

Euskal Herri mailan, berriz, gaur egungo administrazio-egiturak duen zatiketaren gainetik eman nahi dituzte urratsak. Hiru administrazio desberdinen araupean dauden euskal eskolak bildu eta elkarlanerako aukera emango dien egituraketa bat bultzatu eta sendotu nahi dute.

Etorkizunean EAE, Nafarroa eta Iparraldeko eskola publiko euskaldunak egitura berdinean bilduko dituen elkarte sortzea da helburua. Horren haritik, jadanik lehen pausoak emanak dituzte Sortzenekin, eta Iparraldean norekin eta nola bideratu aztertzen ari dira.

Bestalde, Euskal Eskola ipartzat hartuz, denona den helburu hau gauzatzeko gune baten antolaketan parte hart-

zeko konpromezua hartzen dute. Herri honen euskalduntzea eta kalitatezko heziketa lortuko badira, sare ezberdinetako eskolen arteko elkarlana nahitaezkoa dela ikusten dute. Sare publikotik kanpo geratu diren eskola

“Euskal Eskolaren bidean, administrazio desberdinen legedipean dauden ikastola-eskolentzat Euskal Eskola Publiko Berriaren ibilbidean erreferente izan eta aurrerapausoak ematea da Ikasbatuaz egitekoa”

euskaldunek eta ikastolek bakarrik egingo dute bideratu eginkizun hori. Ezta sare publikoan biltzen diren ikastola nahiz eskolek bakarrik ere.

Beraz, helburu horrekin, Ikasbatuaz Elkartek Euskal Eskolaren mugimenduaren indartzea xedetzat duen antolaketa bultzatuko du. Euskal Herriko ikastetxe euskaldunen edozein elkarte (jatorrizko sareak bereizteke) lan hori buru hartzean parte hartzeko aukera izango du.

Euskal Eskola Publiko Berriaren erreferentzia guztia


Azken urteotan, euskararen normalizazioa, hezkuntzaren berrikuntza eta gurasoen parte hartzearen arloak bultzatzeko lanean aritu diren kolektiboek ezberdinei esker, aurrerapauso nabarmenak eman dira eskola publikoaren barruan. Baina hau ukaezina izan da ere, oraindik zeregina handia dago, horri gogotik heldu nahi dio Ikasbatuaz.


Arlo horietako bat euskararen normalizazioa da. Herrialde bakoitzeko egoera ezberdina eta desorekatua da oso: Gipuzkoan euskalduntzeak eragin handia du, baina Euzkoan, eta bereziki Euzkoan, mo ona darama eta Bizkaian, erritu motelagoa den arren, bide onetik aurreratu da. Baina ezin ditugu ahaztu Euskararen Legeak Nafarroan sortutako egoera, Araban A ereduak duen indarra eta Iparraldeko egoera.

Hau horrela izanik, Euskal Eskolaren bidean administrazio desberdinen legedipean dauden ikastola-eskolentzat Euskal Eskola Publiko Berriaren ibilbidean erreferente izan eta aurrerapausoak ematea da Ikasbatuaz egitekoa.

Euskal Eskola Publiko Berriaren ezaugarriak hauexek izango lirateke: Ikasbatuaz arabera: eskola euskaldunak, euskal curriculum propioa garatzea, eredu duena, anitza eta integratzailea, kalitatezkoa eta aurrerakoa eta elkarlana, erabakitzea, erabakitzea, erabakitzea eta solidaritatea bultzatzea, erabakitzea duena.


Hau guztia paperetik praktikara eramateko helburua du Ikasbatuaz. Erronka itzela da, baina gogoz arduraz betetako Ikasbatuaz Elkarlanaren asmo tinkoa, era berean.





elkarriketa


AMAIA VAZQUEZ




“

*Guraso eta hezitzaileok
sexualitatea haurtzarotik
hasten dela jabetu behar
dugu*

”



Amaia VAZQUEZ psikologoa eta sexologoa



AMAIA
VAZQUEZ



“*Haur-
tzarora gure
bizitzako
arorik
erotikoena
da.
Erotismoz
betetako
arora da*”

Amaia Vazquez sexologoa eta psikologoa urte asko daramatza ikastetxeetan ikasle, irakasle eta gurasoekin lana egiten. Sexualitatea edo sexu heziketa da bere gaia. Urte hauetan egindako lanaren emaitzak jasoz dabil, baina hein berean, oraindik egiteko eta aldatzeko dauden gauzak ikusten ditu. **Azpimarragarriena: haurtzarora ere sexualitatea kontuan hartzea eta lantzea.**

Nola ikusten duzu sexu hezkuntza?

Duela urte asko, sexu hezkuntza osasun hezkuntzaren barruan sartu genuen eta hortik bideratu zen PAT guztietan eta curriculum guztietan. Baina, egia esan, informazio emate hutsean gelditu zen. Sexu hezkuntza, ordea, ez dela informazio sexuala ematea soilik konturatu gara. Informazio sexuala bi ordutan eman daitekeen zerbait da, eta sexu hezkuntza ez.

Gainera, informazio sexual horrek ez zuela emaitza onik ematen konturatu ginen: nahigabeko haurdunaldiek jarraitzen zuten, zenbait tabu bizirik zeuden (birjinitatearena, minarena...).

Orduan, nolako izan behar du sexu hezkuntzak?

Afektibitatea eta sexu hezkuntzaren lanketan bizipenak landu behar ditugu. Ez da hain garrantzitsua kondoi bat nola jartzen den jakitea, baizik eta kondoi horrek zer-nolako bizipenak sortzen dituen jakitea. Ez da hain garrantzitsua haurrak masturbatzen direla jakitea, baizik eta masturbazio horrek zer-nolako bizipenak sortzen dituen jakitea.

Beraz, horrela kokatuta, komunikazio eredu baten barruan sartuko genuke sexu hezkuntza, eta ez osasunaren barruan edo informazio hutsean soilik. Garbi eduki behar dugu gizakion

sexualitatea animalienetik bereizteko bada, senetik urrundu eta harreman afektuen munduan sartzen delako. Horrek komunikaziora eramaten gaitu eta horrek bizipenak lantzeraz.

Kokapen berri hau aintzat harturik, nola landu behar du sexualitatea?

Guraso eta hezitzaileok sexualitate haurtzarotik hasten dela jabetu behar dugu. Hortik hasi behar dugu. Nahi uste dut orain arteko urteetako ibilbidean haurtzarora ahaztu egin dugula. Informazio sexuala nerabezarora inoiz ere ondoren eman izan diegu gazteei, gainera ugalketa eredu oinarriak harturik.


Hezitzaile guztiok haurtzarora garrantzia ematen hasi behar dugula sexualitatean soilik, nortasunean izaera garatze prozesuan ere lehenean. 7 urtetan ezartzen baita gure izaera muina. Haurtzarora definitzen ez nolakoak izango garen, eta ez nerabezarora. Guk nerabezarora depreso krisi bat jasaten badugu, depreso horren oinarriak haurtzarora egoz dira. Oso baikorrak eta alaia baga haurtzarora segurtasuna jaso dugun esan nahi du.

Nola definituko zenuke haurtzarora?

Haurtzarora gure bizitzako erotikoena da. Erotismoz betetako arora da eta erotismo hori errespetatu eta bultzatzea ezinbestekoa zaigu gazteek eta helduek euren sexualitate modu natural batez eta protagonismo bizi dezaten.

Haurtzarotik hasi behar du orduan. Nolako da haurtzarora sexualitatea?

Haurtzarora buruz hitz egin behar badugu, edo haurtzarora izaten denera adierazpen edo bizipen sexuali buruz aritzen bagara, garbi dago plazerrak edo ludismoaren eta sentimenduen eredu kokatu behar dugula sexu hezkuntza. Eta hori eredu borrokatua da.



Zergatik diozu eredu borrokatzailea dela?

Sarritan plazer edo ludismo hori konkistatu dugula uste dugulako, eta ez da egia. Transizio garaian gaude, baina oraindik ere kostatzen zaigu haurren eta gazteen sexualitatea onartzea. Eta euren sexualitatea ez da ugaltzea, noski.

Zer geratzen da haurtzaroan?

Sarritan ez dakigu haurtzaroan geratzen dena irakurtzen. Bat-batean haurrak oso exhibizionistak direla ikusten dugu, biluzik ibili nahi dutela etxean, ikastetxean... eta ez dakigu oso ondo zergatik izaten dituzten jokaera hauek. Horrela bizitzen dute plazerra eta hori, jaiotzen diren unetik bizi behar dutela ohartu behar dugu. Beraien atal erogenoa ahoa da eta oso garrantzitsua da. Ahoarekin eta bularrarekin edukiko dute plazerraren bizipenaren lehenengo harremana. Eta plazer hori bizitzen utzi behar diegu. Ahoa eta gorputza estimulatu behar dira, beldurrik gabe. Besarkatuz, ahoaren bidez eta, oro har, gorputzaren kontaktuaz plazer hori ematen badiegu, haurrak seguruago sentituko dira eta ez diote plazerrari beldurrik izango.

Plazerrari beldurra diogu, orduan?

Bai. Paradoxikoa dirudien arren, beti kantitatearekin neurtzen jarraitzen dugu, eta ez dakigu plazerra kokatzen. Eta horixe da gure helburu orokorra, hainjustu; plazerrari eta kontaktuari beldurrik ez izatea.

Haur batzuek, adibidez, ez dakite beste baten besarkadari erantzuten, blokeatuta gelditzen dira. Gorputz jarrera horretan plazerrarekiko eta kontaktuak ematen duen ludismo eta komunikazioarekiko zalantzak dauzkala behatzen dugu.

Dena dela, zerbait aurreratuko genuen urte hauetako lanarekin, ezta?

Egia da gauza batzuk gainditu ditugula. Haurrak masturbatzen ikusten



ditugunean ez dugu esaten hori bekatua dela edo hori ez dela egiten. Baina behin eta berriro masturbatzen direnean...

Zer eskaintzen die masturbazioak haurrei?

Masturbazioaren praktikak bi helburu ditu. Batetik, plazerraren deskubritzea modu autonomo batez. 2 urtera arte guk ematen baitiegu plazerra, guk estimulatzen baititugu, baina 3 urtetik aurrera beraiek hasten dira, beraiek esperimentatzen dute beraien gorputzarekin.

Bestetik, gorputzak ematen dien plazerrari esker, euren autoestima era baikor batez lantzen dute, gorputza maitatzea autoestima sendotzeko eta garatzeko lehenengo urratsa baita.

Euren gorputzarekin esperimentatzen hasten diren garaian, zein garrantzi du helduoi buruz duten irudiak?

Garrantzi handia du, dudarik gabe, eta ikuspegi honetatik gauza handia lortu dugula esango nuke. Alegia, gurasoak biluzik egotea adin honetako haurren aurrean. Hori lorpen garrantzitsua da. Zeren mutilek aita ikusi behar baitute, aitaren organo genitalak ikusi behar baitituzte beraiek nolakoak edukiko dituzten jakiteko. Haurrei ikaragarri kostatzen zaie organo genitalak hor izango dituztela barneratzea. Zakila erori egingo zaiela pentsatzen dute, iraunkortasun sentimendua barneratzea kostatzen zaie.

Zer sentitzen dute beste gorputzarekiko?


Besteen gorputzarekiko ere interesatzen dute, hori bai. Izugarri interesatzen dago eta uzten bazaie, jarduera sexualak ikaragarriak eta maiztasun handikoak dira: batak bestea ipurrik jotzen du, pititoea ukitzen dio... Gainera, sexu arteko desberdintasunak dago, mutilak mutilekin eta neskekinekin ikus ditzakegu haurtzaroan.


3 urtera arteko jokaerak oinarri horiek. Zer gertatzen da 3 urtetik aurrera?

Hiru urtetik aurrera gizartera sartzearen prozesuan sartzen dira eta joko sexual horiek guztiak behatzen hasten gara. “Kontxo, nire semea beste mutil batenekin ari da. Homosexuala izango da?” eta antzeko komentarioak ematen hasten gara.

Hiru urterekin ez dira ez homosexualak, ez heterosexualak. Anbisexualitatea existitzen da eta anbisexualitateak homosexualitatearen bidez heterosexualitate batera bideratuko dira.

Adin honetan badago beste bizitza bat ere, oso garrantzitsua dena: gurasoei barneratzea asko kostatzen zaiena: hiru urtetik aurrera neskek mutilek desio sexuala sentitzen dute. Energetikoki helduen berdina da, baina bizitzeko moduan desberdina. Mutilek emintze handiak daude, eta eskualitate handiarekin. Normala izaten diren gurasoak lehenengo objektu sexualak





AMAIA
VAZQUEZ



“*Eskolak
eta gurasoek
elkarren
arteko
komunikazio
harremana
eduki behar
dute mezu
bateratuak
irits daitezen
haurren-
gana*”

izatea. Gainera, berehala barneratzen dute gurasoen ohearen sinbologia. Gurasoen oheak izugarritzko erakarpena dauka.

Zer aurkitzen dute, bada, gurasoen ohean?

Gurasoen ohean egotea gustatzen zaie, aita eta amaren erdian, eta helburu batekin: aita eta amak elkar ez lastantzeko, elkar ez musukatzeko. Eurek izan nahi dute sexualitatearen protagonista.

Hau ulertzea garrantzitsua da, gure jokoerak beraien desio sexuarean lagundu egin behar dielako. Beraien adinekoak desiatu behar dituzte, baina gurekiko desio horretatik pasa behar dutela jakin behar dugu. Beraz, utzi egin behar zaie erdian egoten, utzi egin behar zaie musuak puskatzen, baina integratuz. Guztiok elkarri musuak ematea lortu behar dugu.

Lehenengo gurasoak dira objektu sexualak, eta gero, berain adinekoekin bikoteak egiten hasten dira. Zer garrantzi dauka horrek?

Izugarria. Guri joko tonto bat dela iruditzen zaigu, baina lehenengo hautaketa da eta hautaketa horrek ikaragarri baldintzatuko ditu etorkizunean egingo dituen hautaketak.

Haurren lehenengo galderak hauek izaten dira normalean: “Nola jaiotzen dira haurrak? Nola sartzten da amaren barruan?” Zer diozu galdera hauei buruz?

Normalean hiru urtetik aurrera galdetzen digute hori, eta asko kostatzen zaigu erantzutea. Ba al dakizue zer kostatzen zaigun gehien bai guraso eta bai irakasleoi? Zakila baginaren barruan sartzten dela esatea. Bere hizkuntzan azaldu behar dugu, baina erresistentzia bat somatzen dugu.

Adierazpen eta bizipen hauek guztiak etxean eta ikastetxean ematen dira. Ez al daude nahiko urrun bata bestearengandik?

Bai, eta oztopo handia da hori. U asko daramagu Haur eta Lehen Hizkuntzan gurasoekiko ez-ulertze hori. Gurasoak ez dira irakasleekin biltzen. Eta irakasleek ez diete azken gurasoei sexualitate programari aurrera eramango dutela. Ez oinuz ausartzen zenbait gauza egitera gurasoek esango dutenaren beldur dira. Gurasoek, aldiz, sexualitatea eskolara irakatsiko dietela pentsatzen dute.

Zer esan nahi du horrek? Kezkarik ez dagoela gurasoekin aldetik seme-alaben sexu hizkuntzaz?

Nik uste dut kezkatzen den guraso kopurua ghetto batekoa dela. Behar zenbat hitzaldi, ikastaro eta osakur ikastaro ematen ditudan, eta 15, 30 etortzen dira leku gehienetan. Gurasoak ez dira asko kezkatzen euren seme-alaben hezkuntzaz, arazoak dauderen soilik, orduantxe.


Denok jakin behar dugu guraso izaten ikasi behar dugula. Gaur egun gainera, inoiz baino garrantzitsua da hori. Zergatik? Gizartearen konplexutasunagatik.


Gainera, orain zenbat seme-alaba noiz eduki aukera dezakegu eta hori tratze horrek, modu batean beste arazo baten aurrean jartzen gaitu. Gurasoak horretan jarri behar dute.

Gurasoek eta irakasleak berriz ere ezinbestekoa dela azpimarratu behar da, orduan.

Bai, nik beti hiruki bat marrazten dut: eskola, gurasoak eta haurrak. Eskolak eta gurasoek elkarren arteko komunikazio harremana eduki behar dute haurrengana mezu bateratuz irits daitezen. Gaur egun, oraindik ez dira bateratuak, ez daude adostasurik. Adibidez, eskolan masturbatzen uzten die eta etxean ez, edo etxean ez eta eskolan ez.

Nik uste dut hezkuntzaren erronka hori izan behar duela: behingoz gurasoak bileretan elkartzea, irakasleekin





zenbait programa prestatu edukitza eta gurasoei zein helburugatik landu nahi diren esatea. Informazio hori edukiz gero, gurasoek askoz gehiago errespetatuko dute eskolako lana.

Sexualitateak haurtzaroan duen garrantzia azpimarratu duzu behin eta berriz. Gaur egun Haur Hezkuntzan sexualitatea lantzen dela uste al duzu?

Nik uste dut ezetz. Benetako gai serio bat bezala, ez. Adibidez, masturbatzen badira utzi egiten diegu, biluzten bada ez dakit zer egiten dugu... Baina programaketa bezala ez da lantzen.

Ba al dago Haur Hezkuntzan sexualitatea lantzeko programarik?

Bai, badaude, eta oso politak. Guk Harimaguada programaketarekin funtzionatzen dugu. La Laguna unibertsitateko programa da, zaharra, baina oso polita. Sexualitatearen barruan gai bakoitza lantzeko programaketa zehatza dago. Bakoitzean zertarako irakasten dugun, helburua, dimentsioak eta abar zehazten dira.

Azal diezaguzu programa bat, horren barruan egiten diren ekintza zehatzak.

Adibidez, identitate sexualarena. hiru urtetik aurrera lantzeko programa da eta ekintza hauek aipatzen ditugela egiteko:

- "Marratzu mutiko eta neskato bat dutxan eta azaldu marrazki bakoitza". Hemen norbaitek organo genitalak ez dituela marraztu konturatuko gara. Behaketa lana da irakaslearena. Haur desberdinen azalpenak ere kontrastatuko ditugu.

- "Haur guztiak lurtean jarri paper handi baten gainean eta bakoitzak bere gorputzaren zilueta marrazten du. Gero, organo edo atal guztiak ematen dizkiegu gorputzetan itsasteko. Ondoren, gelan jartzen da erakusketak moduan eta zilueta arteko desberdintasunak ikusten ditugu: bat altuagoa da, bestea gizenagoa, batek zakil handiago du...".

- "Gorputz pintaketa. Haurrak biluzik jartzen dira eta batak besteari gorputza kolore desberdinez margotzen dio. Ondoren denak dutxatu egiten dira". Ekintza honetan gatazkatsuenak denak biluzik jartzea izaten da. Bestalde, eszitazio egoerak izango dira eta nola bizi dituzten behatu behar dugu.

Ekintza hauek nola ebaluatzen dira?

Ebaluatzeko eta kontrastatzeko beste ekintza batzuk egiten dira:

- Plastilina edo bustinez neska edo mutil baten gorputza egiten da. Ondoren, komentatu egiten dira zein atal egin dizkieten ikusiz eta aurretik ikasitakoa barneratu duten ala ez ikusiz.

- Psikomotritateak. Gehienbat mugimenduaren aldetik lantzen da, baina harreman psikomotritateak ere hor dago eta joko handiak egin daitezke.

- Abestiak abesten dira. Adibidez, badago gorputzaren ezagupena lantzeko oso egokia den abesti bat: "Begiak ikusteko, ahoa dastatzeko, belarriak entzuteko, eskuak ukitzeko..." Bada, abesti honetan organo genitalak ahaztu egiten dira, desagertu egiten dira. Ez zaigu inoiz bururatzen "zakiltxo pixa egiteko edo gozatzeko, edo bulba ukitzeko edo laztantzeko" esatea. Hasieratik ahaztu egiten zaizkigu organo genitalak, eta daukaten garrantziarekin, gainera. Zeren organo genitalen aurkikuntzari esker osatuko baitugu gure gorputz irudia, eta gure gorputz irudirik gabe ez gara ezer.

Programaketak egonagatik, gela barruan egoera konkretuak sor daitezke. Zein da irakasleontzako funtzioa, zeregina kasu hauetan?

Lehenengo eta behin, behatzea, joko eta adierazpen horien guztien aurrean, lehenengo lasaitasuna agertu behar dugu, egoera bakoitza zergatik gertatzen den ulertu.

Bigarrenik, gauza askoren lanketa egin behar da, lanketa programatua. Etxean identitate sexualaren lanketa modu batean egiten da, eta eskolan




beste batean. Adin bereko haurak biltzen dira eta hori garrantzitsua da.


Gizarteratze prozesu bat gertatzen da adin honetan eta horren barruan sexuen arteko komunikazioa bultzatzeak, errespetuaren eta desberdintasunaren bizipenak bultzatzeak, ezagutza indartzeak... garrantzi handiak dute. Lehen aipatutako programak elkarrengana ezagutza bultzatzen ari dira beraiek, eta ezagutza hori barruan balore ezberdinak: errespetu desberdintasuna, diskriminazioa... Zeren, adin honetan, hizkuntza eskuratzen ari diren honetan, hizkuntza ekartzen dute eta bereizten ditugu "cojones, puta, m... ca..." bezalako hitzak. Irakasleok kikitik hiztegi hori guztia bideratzen gaude diskriminaziorik gabeko bileren barruan.

Sexu ezberdineko eta adin bereko haurrak ditugu gelan eta horrek eragiten duen informazio iturri eta bizi iturri guztia aprobetxatu behar da. Hori izango litzateke irakasleontzako lana.


Zein dira irakasleontzako kezka nagusiak?

Haur Hezkuntzan batez ere haur guztia jokoera noraino den normala. Beste





AMAIA
VAZQUEZ



“*Gurasoak
eta
irakasleak
maiz
elkartzea
komeni da
komunak
izango diren
helburuak
zehazteko*”



zenbait lanketa egiteko beldurra dago gurasoek esango dutenarengatik. Bi horiek dira kezka nagusienak.

Hirugarren bezala nola esku hartu ez jakitea aipatuko nuke. Adibidez, masturbaketarekin arazoak daudenean. Familian zerbait gertatzen ari denean haurren joera erregresiboa da eta askok marturbazioa erabiltzen dute erregresio horri forma emateko. Orduan, zer egin behar du irakasleak? Normalean haurrari zerbait esaten diogu eta hori ez da egin behar, haurrari ez esan ezer inoiz. Familian zer gertatzen den aztertu behar da eta familiarekin hitz egin.

Beste haurrak berarekin sartzan badira zer egin? Bada, gauza normala dela esan eta denok jolasten dugula gure organo genitalekin.

Zein laguntza mota eskaintzen duzu zuk ikastetxeetan, Amaia?


Nik bi funtzio betetzen ditut ikas-

tetxeetan.

Alde batetik, nerabegarotik aurrera neu sartzan naiz gelan, hots, DBH lehenengo mailatik aurrera, eta ikasleekin ekin neu egoten naiz. Beti eskatzen dut tutorea egotea, baina batzuek egoten da eta beste batzutan ez, ikasleekin tetxearen arabera. DBHko lau mailatan lan bat burutzen dut ikasleekin lan polita irteten da. Ikasturtea burutu ostean, gurasoekin biltzen naiz zein momentutan gauden, zer ikasleak dudan eta zer landu dugun komenitzen diet. Beti egiten dut balorazioa gurasoekin.


Bestetik, DBHtik beherako mailatan ez naiz gelan sartzan. Ni aholkulari bezala egoten naiz irakasleak osatzen baina ez naiz gelan sartzan, hori irakasleari dagokio. Adin horietan irakasle gelara sartzan kaltegarria izango litzatekeela pentsatzen dut. Irakasleekin haurren erreferentzia.

Sexu hezkuntzari buruzko edozein kezkaren inguruan galdera edo kontsultaren bat egin nahiko bazenio Amaia Vazquezi, gurekin harremanetan jar zaizteke.



GUTUNAK


Zuen kezkak,
iritziak,
desadostasunak,
itxaropenak,...
adierazteko
lekua izan nahi
du.




Berriak

Bidal itzazu zure burutapenak irakasle
euskaldunon aldizkarira

ABENDUA





Berriak

Musika irakasle euskaldunon lehenengo topaketa

Noiz: 1999ko urtarrilaren 22an

Non: Donostiako Goimailako Kontserbatorioko "Francisco Escudero" aretoan.

Deia norentzat: Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako musika irakasleentzat, Magisteritza eskoletako ikasle eta irakasleentzat, Pedagogia zerbitzu ezberdinetako irakasleentzat eta interesatu ororentzat.

Ordutegia:

- *Goizean*: 9,30etatik- 13etara
- *Arratsaldean*: 15,30etatik 18,30etara

Egitaraua:

- Arlo teorikoa.
- Arlo praktikoa.
- Amankomuneko gogoeta.

Zalantzak argitzeko:

Astelehenetik ostiralera, asteartek izan ezik, arratsaldeko 4etatik 7etara.

Tfnoa eta Faxa: 943-493842

"Heziketa eta komunikazioa" jardunaldiak Eskola, gizartea eta komunikabideak



Gipuzkoako Campuseko Errektoreradordetzak "Heziketa eta komunikazioa" izeneko jardunaldiak antolatu ditu gai horretan interesa duen guztiarentzat.

Abenduaren 10 eta 11n
Donostiako Irakasle Eskolan

Abenduak 10

18.30etan

Komunikabideen eragina: ikuspe-

gi desberdinak. JOSU AMEZAGA (Ikus-entzunezko Komunikazio eta Publizitate Saila. UPV/EHU)

19.30etan

HEKO (Heziketa eta Komunikazioa). Komunikabideen irakaskuntzarako lantaldearen aurkezpena.

Abenduak 11

18.30etan

¿Qué podemos hacer con los medios de comunicación desde la Escuela? la Sociedad? L.M. Alvarez (Ihardun Multimedia) eta Carmen Rinco (Kataluniako Generalitatea. Consejo Audiovisual para los Medios).

Informazio gehiago: Teknologia Berrien Mintegia. Koordinatzailea Joxemi Correa. Telefonoa 943 44 84 43

Euskara Zine Aretoetara

Tinko Euskara Elkarteak eta hainbat udalek zinea euskaraz ikusteko aukera ematen digute. Hona hemen non-zer ikuskizun dagoen:

Abenduak 6, igandea

Legazpiko Latxartegi aretoan "Charlie & Louise" 16.30etan

Oñatiko Santana aretoan "The Borrowers" 17.00etan

Billabonako Gurea aretoan "Rudy, txerri azkarra" 17.00etan

Abenduak 13, igandea

Debako Zubelzu aretoan "Big" 16.00etan

Oñatiko Santana aretoan "Charlie & Louise" 17.00etan

Billabonako Gurea aretoan "The Borrowers" 17.00etan

Abenduak 20, igandea

Legazpiko Latxartegi aretoan "Big" 16.30etan

Billabonako Gurea aretoan "Charlie & Louise" 17.00etan

Abenduak 27, igandea

Oñatiko Santana aretoan "Big" 17.00etan

Abenduak 29, asteartea

Getxoko antzokian "Charlie & Louise"


Abenduak 30, asteazkena


Getxoko antzokian "Rudy, txerri azkarra"

1999ko urtarrilak 3, igandea

Billabonako Gurea aretoan "Big" 17.00etan

Erredakzio itxitakoan ziurtatu zeuden ikuskizunak hauexek zire. Ondoren gehiago sortzea gerta liteke.





ARGITALPENAK




BASERRI ERAITSIA

Iñaki Arzo eta
Andoni Alonso
Gaiak
argitaletxea

Historia eta Gizartea sailean argitaratu du Gaiak argitaldaria "Baserreraitsia (Jatorrizkotasunaren adierazpena)" izeneko liburua. Bertan jatorrizko arkitektura aztertzen da nagusiki, eta horrekin batera jatorrizko kultura, bizitza eta espiritua. Egileen asmoa hori guztia erakustea eta gaur egun gure jatorrizko arkitektura eta bizitza ezinbesteko gainbeherari irtenbidea bilatzea izan da. Horretarako, jatorrizko espiritua berreskuratzeari ekiteko bideak ireki nahi izan dituzte.

ANIMALIAK, NIRE LEHEN ENTZIKLOPEDIA

Hachette
Elhuyar
argitaletxea



Animaliak CD-ROM berri hau 5-9 urte bitarteko haurren prestatutako lana da. Lehen Hezkuntzako "Inguru naturala eta sozialaren ezagueraren" deituriko atalean kokatzen da, hots, bizirik mantentzeko diren gaiaren barruan.

CD-ROMean 200 animalien fitxak agertzen dira eta hantarako azaltzen den testua entzun ere egin daiteke. Aurkibide eta erreferentziak, sailkapen-pantaila, termino berezien lexikoa, animalien bizilekuen planisferioak, jokoak eta alegiak osatzen dute edukia.

CD-ROMa PC eta Macintosh bateragarritan erabilgarria da eta prezioa 8.000 pezetakoa (320 liberakoa) da.

EUSKARAZKO BIDEOAK

Annaanna eta Haur lehoia
Tinko Euskara Elkartea



Lehenengo bideoan, Anna neskatilaren istorioa kontatzen da. Testuliburua eramatea ahaztu zaio eta kopiagailuan jartzen du isilean. Bat-batean eskolazaina agertzen da eta kopiagailuan gordetzen da Anna. Ondorioz, kopiagailuak neska kopiatzen du eta bi Anna agertzen dira. Hortik aurrerako abenturak bideoa ikusi ahal izango dituzue. Bigarren bideoak, bestalde, afrikar tribu baten ohiturak, sineskerak eta bertako biztanleek naturarekiko duten fedea erakusten dizkigu.

"TUTTI DA CAPO" ZINTAK

Musika irakasbidea
Ibaizabal argitaletxea



Bi musika zintek osatzen dute Tutti da Capo musika irakasbiderako proiektu didaktikoa. Haur eta Lehen Hezkuntzan musika lantzeko metodologia da berria. 6 urteko haurren prestatutako programa honetan 21 saiok eta abestiak sartuta daude. Bakoitzean musika irakasteko materialak sartuta daude eta irakurleek erabiltzeko modukoak diren atalak lantzen direlarik.


MOZTARINA, NIRE AITA KAPITAINA DA ETA AHATE POBREEN URMAELA

Pere J. Carbó, Olga Xirinacs eta Fina Casallerrey
Edebé-Giltza argitaletxea



Haur literaturako euskarazko hiru liburu kaleratu berri ditu Edebé-Giltza argitaletxea. 6 urtetik aurrerako haurrentzako dira bereziki horietako bi: Olga Xirinacs idatzitako "Nire aita kapitaina da" eta Fina Casallerreyren "Ahate pobreen urmaela". Idazle honek Edebé gazte literatur saria jaso du liburu honekin.

Hirugarren liburua gaztetxoek zuzendurikoa da: "Moztarina". Pere J. Carbó idatzitako liburua da, beste liburuak bezalaxe, hau ere irakurtzea gustuko ez denak ere irakurteko modukoak diren atalak lantzeko helburuz idatzi duena.



Berriak

Elhuyar ikerketa-mailako aldizkariaren itxiera

1986. urteaz geroztik Elhuyar Kultur Elkarteak bi aldizkari argitaratzen zituen: Elhuyar eta Elhuyar Zientzia eta Teknika. Elhuyarrek ikerketa-artikuluak argitaratzen zituen eta Elhuyar Zientzia eta Teknikak dibulgaziozko artikuluak.

Baina hemendik aurrera gauzak ez dira horrela izango. Arrazoi ekonomikoak direla medio, Elhuyar aldizkaria argitaratzeari utziko dio Elhuyar Kultur Elkar-teak.

Beraz, hemendik aurrera Elhuyar Zientzia eta Teknika aldizkariak jarraituko du aurrera eta hilerohilerok zientziaren dibulgaziorako lanak argitaratuko dira bertan orain arte bezala.

Haur-jolasak eta jostailuak



Bilboko Euskal Museoa "Haur-jolasak eta jostailuak" izeneko erakusketa dago ikusgai urtarrilaren 31 arte. Heldu zein haur-erentzat prestatu duten museoa da, joko, jostailu eta bitxikeriaz bete dagoena.

Bilboko museoaren asmoa helduak eta haurrak jostailuen inguruan biltzea eta elkartzea izan da. Museoa jostailu ezberdinez bete dute. Guztiak XIX. mendearen azkenean hasi eta XX. mendearen erdira artekoak dira.

Erakusketa honen bidez garai horretan erabiltzen ziren jostailuak eta jolasak berreskuratu nahi dira, eta horien inguruko kultura eta ohitura guztiak, hein berean. Gure inguruan izandako jolasak, interesak eta afizioak jarri nahi izan dituzte ikusgai.

Museoa zeharkatuz

Jostailu eta jolasen munduan sartzeko gonbiteari erantzunez Bilboko museora hurbildu gara. Museoa lau ataletan banaturik dago, eta bakoitzean gauza ezberdinak topa daitezke.

Lehenengo atalean nagusien munduko gauzak adierazten dizkiguten miniatu-razko jostailuak daude ikusgai. Izan ere, txikitan nagusien mundua imitatzen saiatzen gara. Panpinak, etxea eta eguneroko bizimodua, garraioak eta animaliak topa daitezke hemen.

Bigarren atalean kanpoan, eremu zehatz batean, jolastekoak daude ikusgai: lasterketak eta mugitzekoak, jautzikoak eta bilin-boloka ibiltzekoak, jaurtitzekoak eta trebetasuna lantzekoak eta inguruko gauze-kin jolastekoak. Jolas hauek haurrek

euren erara jolastu ohi dute.

Hirugarren atalean haurrek musika soinuak eta zaratak egiteko erabiltzen dituzten tresnak daude.

Eta laugarren atalean, berriz, heziketa-erriak eta bilduma egitekoak diren jolasak daude. Haurrak hezitzeko eta jolasean dabilatzala gauza berriak ikas ditzaten egindako jolas eta jostailuak dira haur-erentzat. Haur-jolasak, buruhausgarriak, arkitektureturak eta mekanoak, magia, antzerkia eta zinea, ebakigarriak eta papiroflexia, ipuak eta tebeoak, kromoak, albumak eta kalkamuniak.

Ikusleentzako orduak

Asteartetik larunbatera 10.30etatik 13.30etara eta 16.00etatik 19.00etara.

Igandetan 10.30etatik 13.30etara.

Astelehenetan eta jai-egunetan itxituta.

Erakusketaren inguruko ekintzak

Museoaren batera, eta haur-jolasak eta jostailuak gaiari loturik, hainbat ekintza antolatu dituzte museoaren arduradunek.

- Lehiaketa: Museora joaten den lehen urtetik beherako edonork gehien gustatzen duen jostailua aukeratu eta marraztu dezake. 1999ko urtarrilaren 10era arte aurkeztuko den marrazkien egileen artean puntu ziorik altuena eskuratzen duenari emanen zaio saria. Berau aukeratutako jostailuaren erreproduktzio zehatza izango da.

- Haurrentzako ekintzak:

Abenduaren 5ean, 11.00etan Museoaren klaustroan Takolo, Pirritx, eta Porro pailazoak.

Abenduaren 19an, 11.30etatik 12.30etara ipuin kontalariak 6tik 10etara urteko haurrentzat.

Abenduaren 22an, 17.00etan eta 19.00etan, Oskorri Arriaga Antzokian.


- Beste erakusketak:


Azaroaren 25etik abenduaren 10era Giza Eskubideen Aldarrikapenaren 50. urteurrena (argazkiak). Aldi Baterako Erakusketen Gelan.

Abenduaren 22tik 1999ko otsailaren 7ra, Atzoko eta gaurko lanbideak. Aldi Baterako Erakusketen Gelan.

Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoa

Gurutze, 4
48005 Bilbo
Tel.: 94 45 54 23





Ekarpena

Badok hamalau

Xirula Mirulak DBHrako bideo-zintak kaleratu ditu

Xirula Mirula taldea aski ezaguna da musika arloan egin duen eta egiten ari den lanagatik. Orain dela 22 urte sortu zen eta makina bat diska, liburu eta bideo-zinta jarri ditu guztion eskuetan. Bideo-zintei dagokienez, zortzi urte daramatza eskolan musika lantzeko bideo materialak kaleratzen. Orain arte Haur eta Lehen Hezkuntzako materiala argitaratu du, baina oraingoan DBHrako eskaintzarekin datorkigu: “Badok Hamalau”.

“Badok Hamalau” izena jarri diote DBHrako argitaratu duten lehen bideo sortari. Lau bideoz osatutako bilduma da eta bi atal nagusi ditu: “Euskal kantariak” eta “Mugimendu eta dantza”. Xirula Mirulako kideek azaldu digutenez, “euskal kantariei eskainitako bideoak dira lehen hirurak, eta laugarrena mugimen-

dua eta dantzari eskaini diogu”.

Haurren heziketaren abiapuntu haurra bera eta bere ingurua dira, eta hori kontuan izanik, euskal kantarien historia labur bat egitea izan da Xirula Mirulakoen helburua. Euskal kantagintzaren historiako kantari guztiak aipatzea ezinezkoa da, eta abiapuntu bezala “Ez dok hamairu” edo “Euskal kantagintza berria” hartu dute. Garai hartako giroa eta egoera Xirula Mirulako kideek gogoratu digute: “Ez dok hamairu sortu aurretik herriak kantatzen zuen. Haur kantarien mugimendua martxan zegoen eta hainbat herri-abetesbatza kantari zebiltzan ordurako. Eta nola ez, Nemesio Etxaniz lan izugarria egiten ari zen euskara eta euskal kulturaren alde”.

Beraz, herriko kantariak eta Nemesio Etxaniz gogoratu nahi izan dituzte lehenengo eta behin bideo hauetan. Ondoren, Etxahun Iruri aurkezten zaigu, herriak hainbeste urtetan kantatu dituen abestien egilea, pastoral ugari egin zituena, bertsozalea eta abar luze bat. Jarraian Mixel Labeguerie aurkezten zaigu, nolabait esateko Euskal kantagintza berriaren aita izan zena. Ondoren, Julen Lekuona eta Benito Lertxundi aurkezten zaizkigu. Hauekin osatzen da lehen bideo-zinta.

Bigarrengoan, berriz, Mikel Laboa, Maite Idirin, Oskorri eta Gorka Knörr aurkezten zaizkigu. Eta hirugarrengoan Imanol Larzabal, Oskarbi taldea, Anje Duhalde eta Jose Inazio Ansorena.

Bideoaren mamia

Nola aurkezten zaizkigu kantari hauek bideoetan? Zer kontatzen zaigu beraietaz? “Kantari bakoitzari buruz hainbat datu biografiko eskaintzen ditugu” argitu digute Xirula Mirulakoek. “Gero, beraietaz egindako elkarrizketa bat ikusi eta entzu-


ten da. Eta bukatzeko, bakoitzaren lehen taldi batean grabatutako irudiak eta zinean eskainitako kanta bat agertzen dira”.


Kantari bakoitzaren ondoren galderak txiki bat egiten da ebaluaketa modura kasleriari pista batzuk emateko.

Kantari hauei “Harriak” deitu dituzte Jorge Oteizak egindako Arantzazu bideo hamalau apostoluak oinarritzat hartuta. Horregatik agertzen dira bideo zintan azalean Arantzazuko hamalau apostoluaren irudiak eta kantariak.

Laugarren bideoa, lehen esan bezala, mugimendua eta dantzari eskainitako bideoa da. “Gure musika hezkuntzan beti garrantziaz izan du atal honek eta hemen 14 proposatzen ditugun dantza eta mugimenduzko ariketak”.

Beraz, bai abestiak eta bai dantzak ikusi eta aukera ematen digute bideo hauetan DBHko lehenengo mailari zuzenduta da eta ez dira bakarrak izango. Xirula Mirulako kideek jarraipena izango dutela iragarri digute. “Euskal pop, folk eta rock aurkeztu nahi ditugu alde batetik, eta musika klasikoa eta bere historia bestetik”.





Bai euskarari!

Goazen denok abestera!

Presta gaitezen Euskal Herriko haur eta gazte guztiok abenduaren 26an abesteko

Euskararen Gizarte Erakundeek Kontseiluak martxan jarritako "XXI. mendeko akordioa. Bai euskarari" kanpaina gero eta sendoago eta errotuago dago Euskal Herriko gizartean. "Bai euskarari" kanpainari amaiera emateko jaialdi erraldoia antolatu du Kontseiluak. Orain dela 20 urte Euskaltzaindiak egin zuenaren antzekoa izango da, baina ez da San Mamesen bakarrik burutuko. San Mames, Anoeta, Mendizorrotza, Sadar eta Biarritzeko Agilera zelaietan egingo da jaialdia. Euskal Herriko bost lekutan 100.000 pertsona inguru biltzea espero da.

Leku bakoitzean aldi berean egingo dira ekitaldiak eta une batez zelai horien arteko konexio zuzena egingo da. Haurrak, gazteak, helduak eta zaharrak izango dira protagonista jai erraldoi honetan. Baina gauza ez da joatea soilik, jaialdian bertan parte hartzea baizik.

Horretarako modu edo aukera desberdinak egingo dira, baina bat proposatu

nahi dizuegu guk: bost zelaietan h ezberdinetako koruek abestuko du abestia ikastea eta eurekin batera abes



Abestia Imanol Urbietak orain 10 urte asmatutakoa da. Hemen d zue abestiaren hitzak eta musika, i tetxe osoan irakatsi eta ikasteko abenduaren 26ko jaialdian abeste Anima zaitetzte!


Behin betiko

Behin betiko,
behin betiko,
simple bezain tinko,
ez dugu etsiko!!
Behin betiko, behin betiko,
simple bezain tinko,
Euskaraz eta kitto!!

Etxean eta kalean,
berdin-berdin jolasean,
eskolan, lanean,
tristuran eta pozean.
Dakitenek erabiliz,
ez dakitenek ikasiz,
Herri bat osaturik
Euskaraz nahi dugu bizi.

Hasi etxetik eta kalera,
hasi kaletik eta etxera,
martxan jarri da lege berria:
Euskaraz Euskal Herrian!!





Behin betiko

Musika eta hitza: Imanol Urbietta (moldatu)

Mi

Fa#m

Si7

Behin be-ti - ko behin be - ti - ko sin-ple be-zain tin-ko ez
Mi Fa#m

du-gu e - tsi - ko Behin be-ti - ko behin be - ti - ko sin-ple
Si7 Mi La

ple be-zain tin-ko Eus - ka-raz eta ki-tto! E-txe-an e-ta ka-le - an ber-din b
Mi Mi Fa# Si7 Mi

din jo-la - se - an es - ko-lan, la-ne-an, tris-tu-ran e - ta po-ze - an Da - ki
Fa#m Do#m Fa#7

te-neke-ra-bi - liz ez da-ki - te-nek i-ka-siz Herri bat o-sa - tu - rik Eus-ka-raz
Si7 Si7 Mi

nahi du-gu bi - zi Ha - si e - txe - tik e - ta ka - le - an
Si7 Si7 Mi


ra, ha - si ka - le - tik e - ta e - txe - ra, mar-txan ja - rri
Fa#m La Mi Si7 Mi


da le - ge be - rri - a eus-ka - raz Eus-kal He - rri - an
Mi Fa#m Si7

Ha - si e - txe - tik e - ta ka - le - ra, ha - si ka - le - an
MiM Fa#m

tik e - ta e - txe - ra mar-txan ja - rri da le - ge be - rri - an
La Mi

a Eus-ka - raz Eus - kal He - rri - an





Ekarpena

Liburu egokien bila

Hiruki taldeak hezkidetza ikuspegitik egokiak diren liburuak gomendatzen dizkigu

Hiruki taldea duela bost urte sortu zuten Arantza Garai, Ana Rodriguez eta Leire Diego gazteek. Antzerkigintza, ipuin kontaketa eta susperketa da beraien lana. Euskal Herriko ikastetxe, liburutegi eta kultur etxe askotan egon dira orain arte. Beraien lana erakustez gain, gomendio bat ere badakarkigute: hezkidetza aldetik egokiak diren haur literatura liburuen zerrenda.

Gabonak liburuak oparitzeko garai egokia izaten dira eta zabaldua dagoen ohitura da, gainera. Liburua opari egokia izan ohi da bai helduentzat, bai gazteentzat eta baita haurrentzat ere. Baina asmatzea ez da erraza izaten beti. Batzutan testua nolakoa den ez dakigulako, bestetan irudiak edo marrazkiak gustatzen ez zaizkigulako, edo agian formatoak ez gaituelako guztik konbentzitzen.

Zalantza hauek guztiak argitzen lagunduko digute Hiruki taldeko kideek. Beste lanen artean, haurrentzako literatura liburuak aztertzen dituzte hezkidetza aldetik egokiak diren ala ez ikusteko. Batez ere, beraien lanerako behar duten materiala prestatzeko burutzen dute lan hau, baina informazio hori zabaltzeko eta eskatutako edonori emateko ez dute inolako eragozpenik. Horregatik, guri luzatu diguten gomendio zerrenda zuei erakustea egokia iruditu zaigu. Baina aurretik, Hiruki taldea ezagutuko dugu.

Hiruki taldearen lana

Hirukote honen lana susperketa da, hitz batez esateko. Baina susperketa hori modu desberdinetan burutzen dute: antzerkiaren bidez, ipuin kontaketa bidez eta pailazokeriekin.

Antzerkiari dagokionez, hiru antzezlan dituzte prestatuak, eta lehenengo biak irakurketaren ingurukoak dira, irakurzaletasuna bultzatzeko, eta hirugarrena afektibitate lantzeko prestatuak.

Bat "Selena Milena" da. Leire Diego Hiruki taldeko kideak dioenez, "obra honetan bost liburu aurkezten ditugu eta bertan gauza desberdinak agertzen dira lehiaketa moduan eta era dibertigarrian: zer den idazle bat, marrazkilaria, argitaletxea, argumentua, protagonistak...".

Bigarren antzezlan "Anacleto Analfabeto" izenekoa da. "Protagonistak bi lapur dira eta liburutegiko bitxiak lapurtzera doaz. Ez dakite zer diren liburuak eta haurren laguntzaz ezagutuko dituzte bai liburuak, bai mailegu sistema eta oro har liburutegi baten funtzionamendua" dio Leirek.

Antzelan hau, esan beharrik ez dago, liburutegietan eskaintzen dute. "Selena Milena", aldiz, liburutegietan, kultur etxetan edota ikastetxetan antzeztzen dute.

Hirugarren antzezlanaren izena "Sisi" da eta hau afektibitate lantzeko obra da. Droga eta eraso sexuali nola esan ezet erakutsi nahi da bertan eta nola galdu agresibitatea edo pasibitatea ezet esaterakoan. 9 eta 13 urteko haurrentzat prestatuak dago bereziki.


Antzerkiarekin batera ipuin kontaketa ere lantzen dituzte Hirukiko neskek.

Prestaturik duten muntaian bost ipuin kontaketa dituzte. Gehienak beraien karaturikoak dira.

Lanerako materiala

Antzerkia eta ipuin kontaketa burua susperketa eta irakurzaletasuna bultzatzea dutela esan dugu lehen, hori lortzeko material egokiarekin behar dute lana. Horregatik hasi ziren ipuinak eta liburuak aztertzen. Leire Diego Hirukiko kideak dioenez "gure susperketa lanerako egokiak diren liburuak eduki nahi genituen. Ipuin kontaketa eta liburutegietan susperketa egiteko dugunez materiala behar genuen. Behar horrek bultzata ekin genion liburuak aztertzeari. Euskarazko 60 liburu inguru aztertu ditugu eta horietatik 10 pi gomendatzen ditugu guk". Egia da liburu gutxi dira, baina Leirek dioenez euskaraz ez dago gauza handirik topatzeko zailak dira, gainera. Emaeen Ministeritzak ere 100 liburu zerrenda banatu zuen eta Hirukiko kideei oso gutxi iruditu zitzaizkien egokiak.

Baina nola erabakitzen dute zein liburuak diren egokiak eta zein ez diren? Leirek azaldutakoaren arabera "argitaletxeen beste erakundeek bidalitako liburuak "gomendagarriak" aztertzen ditugu. Ipuin kontaketa eta ilustrazioak irakurri eta aztertzen ditugu: amak zer egiten duen, amak zer egiten duen, protagonistak nolakoak diren, zer egiten duten, zer balore transmititzen dituzten eta abar. Eta aztertu ondoren arabera guri egokiak iruditu zitzaizkigunak sailkatzen ditugu gure lanerako eta eskatzen digun edonorentzat.



Haur literaturako liburu gomendagarrien bila

Baloreak

Literaturak orokorrean, eta are gehiago haur literaturak, baloreak islatzen ditu. Alde batetik idazleak barneraturik dituenak, eta beste aldetik, gizartean "normaltzat" jotzen dituenak, eta azkenik, idazle eta ilustratzaileak transmititu nahi dituztenak, zehar-lerroak barne daudelarik.

Liburuetan agertzen diren baloreak bi motatakoak dira: nabariak eta ezkutukoak. Balore nabariak erraz aurkitzen direnak dira, begi-bistan daudenak, idazleak transmititu nahi dituenak. Balore ezkutatuak, berriz, irakurketa sakona eskatzen digute eta hala ere nahiko zaila suertatzen zaigu balore hauek topatzea estereotipoen barruan ezkutatuta daudelako. Ezkutatuak mezuak kaltegarriak omen dira, barneratuta ditugulako eta haien kontra borrokatzeko errekurtso gutxi daukagulako. Zehar-lerroen aurka-koak dira eta ez gara konturatzen gabezia baten bidez agertzen direlako ipuinetan. Adibidez:

- Arrazakeria: ez dira ikusten ez ijitoak, ez beltzak...
- Sexismoa: emakumeek ez dute gidatzen, gizartean ez dute erantzukizunik... eta gizonek ez dute maitasunik erakusten, ez dakite etxeko gauzak egiten...
- Integrazioa: elbarrituak, itsuak, lodiak... ez dira agertzen.

Sexismoa

Hasi aurretik, ezinbestekoa gertatzen zaigu sexismoaren esanahia denok antzera ulertzea. 70eko hamarkadan EEBBetan sexismo hitza arrazakeriaaren antzekotasunagatik sortu zen eta bereizkeria adierazteko barreiatu zen.

Sexismoa edo bereizketa hau haur literaturan neskentzat eta mutilentzat agertzen da. Neskek ez dute kirolak egiten, ez dute erabakirik hartzen, ez dakite beraien burua defendatzen eta abar. Mutilak, aldiz, ez dute negarrik egiten, ez dakite sentimenduak adierazten, ez dira trebeak eskuekin eta abar. Gabezia hauekin pertsona murriztu baino ez dugu egiten.

Hezkidetzak

Hezkidetzak edo elkar heziketa ez da nes-



kak eta mutilak berdintzea eta ikasleriari erantzun bakarra eskatzea, baizik eta pertsona bakoitzak dituen gaitasunak bultzatzea, suspertzea eta indartzea. Erantzun anitza izango dugu orduan, eta banakako portaera egokiagoa izango da.

Hezkidetzak ezin daiteke bide okerretik joan (maizegi gertatu baita hau) eta rolak trukatu baino ez zen egiten. Horrela, neskei mutilen rolik bortitzena jartzen zitzaizkien eta mutilei nesken rolik pasiboena.

Gaur egun, hezkidetzak desberdina dena onartzea eta aniztasunak eskaintzen digun aberastasunaz gozatzea esan nahi du.

Testua eta ilustrazioa

Idazleak sarritan asmatutakoa paperera pasatzerakoan hizkuntza sexista erabiltzen du eta idazlearen istorioa sexista izatea ere gerta daiteke. Honen errua estereotipoek dutela esan dezakegu. Zer da estereotipoa? Adibide batekin errazago ikusiko dugu.

Nolakoa da "irakurle on" bat? Asperria, betaurrekoduna, jolas egitea gustatzen ez zaiona, bakartia... Argi dago irakurle hau ez dela zuzena, ez dela erreala. Estereotipoak otiopeak ezaugarri gutxi batzuekin sailkatzen dituzte eta talde horretakoa izateagatik bakoitzaren erantzuna eta portaera aurreratu dakigu edo somatzen dugu.

Ilustrazioak, batzutan, testuak dituzten estereotipoak indartzen ditu. Haur literaturan, ilustrazioak guztiz erakargarriak omen dira ipuinak buruz ikasten dituzte eta estereotipoa barneratuta eta indartua gelditzen zaie. Ondorioz desberdintasuna ahalizten gelditzen dela kontuan hartu behar dugu.

Duela hamarkada pare bat estereotipoak gaintzeko ahaleginak egin zirela, estereotipoen rolen trukaketa bat baino ez zen egiten. Baina hau ez dela bide egokia esan dezakegu. Zeren gauza ez baita mutil guz-





portaera femeninoa erakustea edo neska guztiek joera maskulinoak hartzea, baik eta portaera bakoitzak dituen alde onak aprobetxatzea bakoitzari ondoen dagokion moduan. Hezkidetzan, desberdintasuna onartzea eta egoera ezberdinetan erantzun egokiena eskaintzea da, lehen esan dugun bezala.

Gaur egungo liburuak

Demagun gizartea sexista dela, eta are gehiago, haurrentzako liburuek estereotipo sexistak islatzen dituztela. Hona hemen horretaz ohartzeko gako batzuk:

- **Amamak:** zaharrak, amantalarakin eta aintzinako motots batekin, eserita eta ia-ia mugimendurik egiten ez dutenak.

- **Aitonak:** bizitza aktiboagoa daramate eta independentzia gehiago adierazten dute.

- **Aitak:**

* Lanean: etxetik kanpo egiten dute lan. Hirian bizi badira trajez jantzita eta maleta batekin ibiltzen dira. Betiko lanbideetan dihardute.

* Kirola: bai praktikatu eta bai ikusi.

* Etxean: egunkaria irakurri baino ez dute egiten. Ez dira batere trebeak etxeko lanetan.

* Emaztearekiko harremana: ez dute maitasunik adierazten.

* Seme-alabekiko harremana: semearekin agian kirola praktikatu dute kanpoan. Alabak errespetu handia sentitzen du.

* Autoa: beraiek zaintzen eta gidatzen dute.

* Irakurketa: egunkaria.

- **Amak:**

* Lana: betiko lanetan, besteei laguntzen: erizaina, liburuzaina, irakaslea, dendaria... Oso gutxitan medikua, kirolaria, abokatua... eta maizegi etxekoandrea.

* Kirola: ez dute kirolik praktikatzeko eta ezta ikusi ere.

* Etxean: beti lanpetuta, ez daukate segundu bat bera ere beraiatzat. Amantalarakin agertu ohi dira.

* Senarrarekiko harremana: zerbitzari.

* Seme-alabekiko harremana: semearen neskameak izaten dira eta normalean errespetu falta atxikitzen zaie seme-alabak zaintzen ez dakitelako.

* Autoa: senarra baldin badago, ez dute gidatzen.

* Irakurketa: liburuak.

- **Neskak:**

* Klasean: mutilak baino zintzoagoak eta langileagoak izaten dira.

* Etxean: leihotik begira eta amets egiten agertzen dira, normalean panpin batekin eta aulkitxo batean.

* Katua: neskaren animalia da, etxe barruan dagoelako.

- **Mutilak:**

* Klasean: zikinak dira, arreta erakartzen dute eta irakaslea pazientzia handia gogoko da beraiekin.

* Etxean: kanpoan agertzen dira, jolas-

ten eta kirola praktikatzeko.

* Txakurra: mutilaren animalia berarekin jolasten du.

Hau adibide laburra izan da. Mota guztietako estereotipoak apurtzen eta gabeziak baztertzen ahalegindu behar genuke. Hala ere, liburu bereziak, gomendagarriak eta literatura onekoak ere badira. Hona hemen gomendio zerrenda:

Gomendioak

- **“Ipurditxo bihurritxo”**. Idazlea: Luis Cortés. Marrazkilaria: Avi. Argitaletxea: S. M. 5-8 urtekoentzat. Liburu honetan aitak zein amak zaintzen dituzte haurrak (nahiz eta amak gehiago). Harremanak igartzen dira.

- **“Zergatik”**. Idazlea: Gabriela Kerzman. Marrazkilaria: Pep Brocal eta M. Brocal. Argitaletxea: Elkar. 5-8 urtekoentzat.

- **“Aita despistatu bat”**. Idazlea: J. Gregori. Marrazkilaria: Rosa Anna C. po eta Enric Soler. Argitaletxea: Elkar. 5-8 urtekoentzat.

Liburu bi hauetan aita eta alabaren arteko harremanak oso erosoak dira eta alabak denbora asko igarotzen dute alabekin egiten. (Semearekiko harremana ikusiz gero, gustatuko litzaziguke).


- **“Mustloa naiz”**. Idazlea: Patxi Z. zarreta. Marrazkilaria: Mikel Valverde. Argitaletxea: Erein. 5-8 urtekoentzat. Liburu honetan aurkezten zaigun familarolak ez daude finkaturik eta bakoitzak edozer gauza egiten du.

- **“Xola”**. Idazlea Bernardo Atx. Marrazkilaria: Mikel Valverde. Argitaletxea: Erein. 7-9 urtekoentzat. Xolaren errietoan gizonak sukaldeko lanetan trebatu direla ikusten da.


- **“Amama maitea, zure Susi”**. Idazlea: Christine Nöstlinger. Argitaletxea: S. M. 9 urtekoentzat. Eskutitzen bidez harremanak eta aipagarriak islatzen dira liburu honetan.

- **“Benek Anna maite du”**. Idazlea: Peter Hartling. Argitaletxea: Alfaguara. Zubia. 12-14 urtekoentzat. Liburu honetan sentimenduez lotsarik gabe hitz egiten digu.

- **“Neskatxak”**. Idazlea: Agustín de Paz. Argitaletxea: Erein. 12 urtekoentzat. 12 urteko neskek erabakiak har ditzaketela azaltzen digu honek.



5 - 8 urte



- 1 Patxi errementaria.
- 2 Makilakixki.
- 3 Sorgin gaiztoa.
- 4 Lau anaia umezurtzak.
- 5 Barbantxo.
- 6 Bigantxaren ordaina.
- 7 Marizikin.
- 8 Gizon harrigarriak.
- 9 Zapatari txiki.



Gure ipu...
herriko...
ikustek...
entzute...
eta